

# Gazteen musika kontsumoa eta euskararen lanketa: inkesta eta proposamen didaktikoa

---

Master bukaerako lana  
2020

Ibai Osinaga Gogorcena  
Zuzendaria: Ekaitz Santazilia Salvador

U. M. Bigarren Hezkuntzako Irakaskuntzan  
Euskara eta Literatura

upna

Universidad Pública de Navarra  
Nafarroako Unibertsitate Publikoa

## **Laburpena**

Lan honetan Alaitz BHIko ikasleen musika kontsumoa aztertu dugu, eta lortu ditugun emaitzekin poesia eta literatura lantzeko proposamen didaktiko bat sortu dugu. Horretarako, lehenik musikaren eta hizkuntzaren arteko lotura aztertu dugu. Jarraian, azken urteetako Euskal Herriko musikaren bilakaeraz aritu gara, bai eta hark literaturarekin duen harremanaz ere. Ondoren, gure proposamena Barañaingo Alaitz BHI ikastetxean egin dugunez, bertako ezaugarriak aztertu ditugu. Oinarri teoriko horiek abiapuntu izanik, arlo praktikoan Alaitz BHIko ikasleen musika ezagutza aztertzeko inkesta bat sortu dugu, eta lortutako emaitzekin DBHko 4. mailarako sekuentzia didaktiko baten proposamena aurkeztu dugu. Lau jardueraz osatua, eta egungo eta azken urteetako euskal musika taldeen kantuek ardatz harturik, proposamena poesia eta literatura lantzeko bide berri bat da. Horrela, beraz, gazteendako musika oso inportantea dela ikusi ahal izan dugu, eta hori kontuan hartuz, proposamen honekin poesia eta literatura irakasteko modua pixka bat aldatzea espero da, ikasleendako atseginagoa bilakatuz.

*Hitz gakoak:* musika kontsumoa, euskara, gazteak, proposamen didaktikoa, literatura.

## **Resumen**

En este trabajo hemos analizado el consumo musical del alumnado del IES Alaitz, y con los resultados obtenidos hemos creado una propuesta didáctica para trabajar la poesía y la literatura. Para ello, se ha analizado primero la relación entre la música y el lenguaje. A continuación, se habla de la evolución de la música en Euskal Herria durante los últimos años y de su relación con la literatura. Como la propuesta se ha realizado en el IES Alaitz de Barañain, también se han analizado las características del centro y de su entorno. Partiendo de estas bases teóricas, en el ámbito práctico se ha creado una encuesta para analizar el conocimiento musical del alumnado del IES Alaitz y con los resultados obtenidos se presenta una propuesta de secuencia didáctica para 4º de la ESO. Compuesta por cuatro actividades centradas en las canciones de los grupos de música vasca de hoy y de los últimos años, la propuesta es una nueva vía para trabajar la poesía y la literatura. Así, se observa que la música es muy importante para los jóvenes, y teniendo en cuenta eso, con esta propuesta se espera ofrecer una alternativa a la forma tradicional de enseñar poesía y literatura, haciéndola más atractiva para los alumnos.

*Palabras clave:* consumo musical, euskera, jóvenes, propuesta didáctica, literatura.

## **Abstract**

In this work we have analyzed the music consumption of students of the Secondary School Alaitz, and with the results obtained we have created a didactic proposal to work poetry and literature. To that end, we have first analyzed the relationship between music and language. Next, we have discussed the evolution of music in Basque Country in recent years, and its relationship with literature. The proposal has been made at the IES Alaitz of Barañain, so the characteristics of the institute and its surroundings have also been analyzed. With these theoretical bases, in the practical field, we have created a survey to analyze the musical knowledge of the students of the Secondary School Alaitz and we have create a learning unit for the 4th grade of secondary school, based on the results obtained. It's made up of four activities centered on the songs of the Basque music groups of today and recent years, and the proposal is a new way to work on poetry and literature. Thus, it's observed that music is very important for young people, and taking this into account, this proposal is expected to offer an alternative to the traditional way of teaching poetry and literature, making it more attractive to students.

*Key words:* music consumption, Basque, young people, didactic proposal, literature.

# AURKIBIDEA

<b>1. SARRERA</b>	<b>3</b>
<b>2. ARLO TEORIKOA</b>	<b>4</b>
2.1. Musika eta hizkuntza	4
2.1.1. Adimen anizkunaren teoria	4
2.1.2. Suggestopedia	6
2.2. Euskal musika XX. mendetik XXI. mendera: erreferentzia berriak	7
2.2.1. 1960: Gitarra «espainola»	7
2.2.2. 1970-80: Gitarra «amerikanoa»	9
2.2.3. XXI. mendea: aldaketa konplexua	9
2.3. Euskal musika eta literatura: zenbait adibide	11
2.4. Ikastetxearen eta inguruaren ezaugarriak	12
2.4.1. Barañain	13
2.4.2. Alaitz BHI	13
<b>3. ARLO PRAKTIKOA</b>	<b>14</b>
3.1. Ikasleek duten musikari buruzko ezagutza: inkesta eta emaitzak	14
3.1.1. Helburuak	15
3.1.2. Metodologia	16
3.1.2.1. Inkestaren diseinua	16
3.1.2.2. Galdera motak/Inkestaren atalak	16
3.1.2.3. Lagina	17
3.1.3. Emaitzak	18
3.1.3.1. Musika zure egunerokoan	18
3.1.3.2. Musika motak eta hizkuntzak	20
3.1.3.3. Euskal musika	22
3.1.3.4. Iruñerriko taldeak	23
3.1.3.5. Irudia eta sare sozialak	24
3.1.3.6. Musika ikasgelan	25
3.1.4. Ondorioak	27
3.2. Sekuentzia didaktikoa	27
3.2.1. Helburuak	27
3.2.2. Edukiak eta gaitasunak	28
3.2.3. Metodologia	29
3.2.4. Baliabideak	30
3.2.4.1. badok.eus webgunea	30
3.2.4.2. Literatura webguneak: armiarma.eus	31

3.2.4.3. Sare sozialak: Instagram	31
3.2.5. Jarduerak	32
3.2.6. Ebaluazioa	35
<b>4. ONDORIOAK</b>	<b>39</b>
<b>5. ERREFERENTZIAK</b>	<b>40</b>
<b>ERANSKINAK</b>	<b>42</b>
1. Eranskina: inkesta	42

# 1. SARRERA

Gaur egungo gazteen musika gustuak eta erreferenteak asko aldatu dira azken urteetan. Musika entzuteko modua aldatu da (*streaming* bidez egiten da eta orain ez dira diskoak erosten), modan dauden estiloak aldatu dira eta hizkuntza ohiturak ere bai. Baina, irakasleek ikasleen erreferenteak ezagutzen al dituzte? Proposamen honetan hari horretatik tiraka jarraituko dugu eta Euskal Hizkuntza eta Literatura ikasgaiari egin daitekeen musikaren erabileraz mintzatzeko gara, inkesta baten eta sekuentzia didaktiko baten laguntzaz.

Azken urteetan euskal musikak aldaketa nabarmenak izan ditu, eta egun euskaraz egiten den musika ez da inondik inora duela hamar, hogeitaz edo berrogeitaz urte egiten zenaren parekoa, nahiz eta, loturak egon badauden. Ildo horretan, historian zehar musika —eta gurean batez ere—, lotua egon da literaturarekin, poesiarekin eta bertsolariarekin. Horrela, lan honekin euskal musika eta hizkuntza lotzen saiatuko gara, euskal kultura eta euskara osasuntsu mantentzeko erreferenteak beharrezkoak baitira, eta irakasle gisa gure ikasleenak ezagutu beharko baikenituzke, haiei baliabideak eskaini ahal izateko. Hartara, inkesta bat egin diegu Barañaino Alaitz BHIko ikastetxeko ikasleei, haien musika kontsumoa ezagutzeko, eta hortik abiatuz, DBHko laugarren mailarako proposamen bat sortu dugu, poesia euskal kantuen bidez lantzeko.

Hori guztia kontuan hartuta, lan honen helburu nagusiak hauek dira: batetik, gazteen musika kontsumoa eta ezagutza aztertzea inkesta baten bidez, gero helburu hezigarri batekin erabiltzeko. Bestetik, eta inkestaren ondorioetatik abiatuta, poesia lantzeko bide berri bat proposatzea dugu helburu, betiere musika eta poesia lotuz, ikasleek poesia gertuago senti dezaten. Horretarako, euskal poesiaren autore garrantzitsuenak kantuen bidez lantzeko sekuentzia didaktiko bat sortu dugu, IKTak ere erabiliko dituen.

Helburu espezifikoak dagokienez, inkestarenak § 3.1.1. atalean azalduko ditugu eta sekuentzia didaktikoarenak § 3.2.1. atalean.

## **2. ARLO TEORIKOA**

Atal teorikoa lau azpiataletan banatuko dugu. Hasteko, hizkuntzen irakaskuntzan musika nola erabili izan den aztertuko dugu (§ 2.1.). Horretarako, Gardnerren adimen anizkunaren teoriak eta Georgi Lozanoven Suggestopediaz mintzatuko gara, musikaren eta hizkuntzen jabeakuntzaren arteko loturak zehaztuz; horrek, prestatu dugun proposamena justifikatzeko balioko digu. Bigarrenik, euskal kantagintzaren historiaren laburpen xume bat egingen dugu (§ 2.2.), gaur egungo euskal musika ulertzeko bi aldaketa garai zehatz ardatz harturik: 60ko hamarkada eta 70/80ko hamarkadak. Horrela, sekuentzia didaktikoan erabiliko dugun musika ezagutzeko aukera izanen dugu. Hirugarren azpiatalean (§ 2.3.) euskal literaturak aipatutako kantagintzarekin dituen loturez arituko gara, adibide zenbait emanez, eta, bukatzeko, Alaitz BHIko eta Barañaingo egoeraz mintzatuko gara (§ 2.4.), bertako egoera soziolinguistikoa gure proposamena gauzatzeko bereziki aproposa dela erakutsi nahiz.

### **2.1. Musika eta hizkuntza**

Musika eta hizkuntzaren arteko loturaz hitz egiteko, bi teoria izanen ditugu mintzagai ondoko lerroetan. Batetik, Gardnerren adimen anizkunaren teoria, eta bestetik, Lozanoven Suggestopedia.

#### **2.1.1. Adimen anizkunaren teoria**

Howard Gardner estatubatuar psikologo eta hezitzaileak 1983an adimen anizkunaren teoria aurkeztu zuen. Gardnerrentzat, adimena arazoak ebazteko edo ingurune kultural batean baliagarriak diren produktuak sortzeko gaitasuna da (Gardner, 2001: 5), baina adimen hori ez da gauza homogeneoa, baizik eta adimen multzo baten moduan ulertu behar den kontzeptua. Teoria horren arabera, beraz, gizaki orok (neurri handiagoan ala txikiagoan) zortzi adimen mota ditu: linguistikoa, musikala, logiko-matematikoa, espaziala, gorputz zinetesikoa, bisuala, naturalista, pertsonartekoa eta pertsona barnekoa. Horietatik lehenengo biak izanen dira datozen lerroetan aztertuko ditugunak.

Gardnerrentzat poeta da adimen linguistikoa garatuen duen gizakia eta poesia hartzen du adimen horren erabileraren adibide nagusi gisa (Gardner, 2001: 68-71). Hala ere, poetak egiten duen hizkuntzaren erabilera alde batera utzita, gainerako gizakiok ezagutza linguistikotik lau alderdi bereizi ditzakegu hizkuntzari beste erabilpen bat emateko. Lehena, hizkuntzaren alderdi erretorikoa

litzateke, hau da, besteak konbentzitzeko gaitasuna; bigarrena, botere mnemoteknikoa da, hots, informazioa gogoratzeko gaitasuna; hirugarrena, azalpenak emateko erabiltzen dugun hizkuntza gaitasuna da, eta laugarrena, aldiz, hizkuntza beraren ekintzen inguruan hausnartzeko gaitasuna litzateke (Gardner, 2001: 72).

Adimen linguistikoan entzumenak eta ahozkoak leku oso garrantzitsua duten arren, ezin dugu adimena soilik horretara mugatu, bestela, adimen musikala bereizteko aukerarik ez genuke, eta horregatik, adimen linguistikoa ezinbestean idatzizkoarekin lotzen dugu. Hala ere, bi adimenak bat datoz ezaugarri batean: ez daude estuki lotuak objektu fisikoen munduarekin (Gardner, 2001: 87).

Adimen musikalarari dagokionez, Gardnerrek (2001: 87) horrela definitzen du musika: «gizakiak beste gizakiekin komunikatzeko duen beste modu bat». Hori egia den arren, zaila da azterketa horretara bakarrik mugatzea, izan ere, musika egiten ez dakien norbaitek ez luke komunikazio gaitasun hori izanen, eta, beraz, musika zer den ulertzeko musika tresna bat menperatu behar dela dirudi. Hori horrela ez dela azaltzeko, musika sinplifikatzeko aukera dugu, bi ezaugarri nagusi bereiziz: tonua (edo melodia) eta erritmoa. Kulturen arabera ezaugarri horien garrantzia aldatzen da, eta, adibidez, afrikar kulturetan erritmoa garrantzitsuagoa den moduan, gauza bera gertatzen da ekialdeko gizarteetan tonuarekin (Gardner, 2001: 91). Adimen musikala ezaugarri jakin horiek prozesatzeko eta ulertzeko gaitasuna da, eta, esan bezala, gizaki guztiak berezkoa dute. Musika pieza baten esaldiak, tonuen arteko harremanak, eskalak eta kantuen egitura ulertzeko, bereizteko eta aztertzeke gai da gizaki oro, nahiz eta sentsibiltate eta prestakuntza musikal baxua izan (Gardner, 2001: 93).

Adimen hauen kokapenez, Portellanok Cerebro Derecho, Cerebro Izquierdo. Implicaciones Neuropsicológicas de las Asimetrías Hemisféricas en el Contexto Escolar (2009) artikuluan hainbat autoreren ideiak dakartza. Daxek, Bouillaudek, Brocak eta Wernickeek hizkuntza gaitasuna burmuinaren ezkerreko hemisferioan kokatu zuten, bai eta alderdi horren nagusigoa konfirmatu, baina, egun, burmuin asimetrien alde egiten dute adituek, bi hemisferioen arteko loturak normalizat hartuz (Portellano, 2009: 6). Aztergai ditugun adimenak (linguistikoa eta musikala, alegia) burmuinaren hemisferio banatan kokatzen dira (linguistikoa ezkerrekoan eta musikala eskuinekoan), baina biak elkarren osagarriak dira, gaitasun guztiak ez baitaude alde batean ala bestean (Springer & Deutsch, 1988: 184-185). Ezkerreko hemisferioak pentsamenduak hitzez adierazten laguntzen digu, eta eskuinekoak, aldiz, ekintzak, arazoaren ebazpena, memoria eta emozioak kontrolatzen ditu (Khaghaninejad & Fahandejsaadi, 2016: 23). Guglielminok (apud



Khaghaninejad & Fahandejsaadi, 2016: 23) gainera, musikak hemisferioak lotzen laguntzen duela baieztatu zuen, izan ere, eskuineko hemisferioak melodia ikasten du, eta ezkerrekoak kantuaren letra. Bestetik, Claerrek eta Garganek (1984) musika hizkuntzen arteko zubi natural gisa irudikatu zuten; motibatze eta lasaitze tresna baliagarri gisa.

Hortaz, adimen linguistikorako eta musikalerako bi hemisferioak behar ditugula ondoriozta dezakegu, eta lotura hau kontuan hartuta, hizkuntzen irakaskuntzan musikaren erabilera positiboa dela frogatu da, bai eta metodo jakin batzuk asmatu ere, Georgi Lozanoven «Suggestopedia», adibidez (Lozanov, 2009).

### 2.1.2. Suggestopedia

Georgi Lozanov hezitzaile eta psikologo bulgariarrak 1966an sugestioa erabiliz teknika berri bat asmatu zuen musikaren (eta beste arte diziplina batzuen) laguntzaz bigarren hizkuntzak irakasteko eta ikasteko, ingurune seguru eta oparoa sortuz ikasgelan: Suggestopedia. Sugestio hitzak, ingelesez, «to offer, to propose» (Lozanov, 2009: 29) esan nahi du, hots, 'eskaini' edo 'proposatu'. Beraz, Suggestopediak ez du behartzen, iradoki egiten du, eta ez da inolaz ere inposiziorik egon behar. Modu horretan, ikasleak askatasun osoa du aukeratzeko eta informazioa nola bereganatu erabakitzeke. Gainera, Lozanoventzat inportanteena ez da *zer* proposatzen dugun, baizik eta *nola* proposatzen dugun, sugestioa onargarriagoa eta naturalagoa izanen baita ikaslearentzat modu horretan eginez gero (Lozanov, 2009: 29).

Sugestioa, beraz, musikarekin (eta beste arte diziplina batzuekin) egiteko aukera luzatzen digu Lozanovek. Bere saioetan musika klasikoa erabili zuen ikasleak lasaitzeko, burmuina erabat estimulatzeko helburuarekin, izan ere, Lozanoventzat, burmuin osoaren estimulazioa ezinbestekoa da eskuratze maila hobereana lortu ahal izateko. Musikak ingurune atsegina sortzeko balio du kasu horretan, eta ingurune horretan adimenaren erreserbak aprobetxatzea errazagoa da (Lozanov, 2009: 61). Bide berean, lasaitze teknika hauek subkontzientean ditugun baliabideak erabiltzen laguntzen ditu ikasleak, hizkuntzaren eta hizkuntza beraren jabetasuna eta egiturak hobeki atxikitzea ahalbidetuz. Esan dezakegu, beraz, bi hemisferioak batzen dituen metodo bat dela, burmuin osoaren erabilera bultzatzen baitu. Musika eta hizkuntza garun-areen ezberdinek kontrolatzen dituzte, baina, arestian aipatu bezala, hemisferioak elkarri loturik daude, eta, hortaz, metodo honek zera erakusten du Khaghaninejad eta Fahandejsaadiren (2016: 120, itzulpena nirea) hitzetan: «Garun-areen arteko interkonexioek esaldiak eta hiztegia ikasten laguntzeko aukera ematen diote musikari. Musikak positiboki eragiten du ahoskeran, memorian, gramatikan, aldarrean, gozamenen eta motibazioan».

Modu honetan, abestien erabilerarekin nerabeek adimen linguistikoa osotasunean garatuko dute, hizkuntzarekin eta hizkuntza beraren gaitasun guztiekin lan egingen baitute. Honela labor genezake ideia hau, beraz: entzumena eta irakurmena lantzeko abestiak eta horien letrak genituzke; ahozkoa abestiak kantatzen landuko genuke, eta idazmena, letrak sortzen edo aldatzen.

## **2.2. Euskal musika XX. mendetik XXI. mendera: erreferentzia berriak**

Euskal musikak garai distiratsu asko izan dituela esan genezake, baina gaur egungo euskal musika ulertzeko, bi garai zehatz zaizkigu beharrezko, aldaketa sakonak gertatu baitziren orduan: 60ko hamarkada eta 70-80ko hamarkadak.

### **2.2.1. 1960: Gitarra «espainola»**

ETAren agerpenak markatu zuen politikoki 60ko hamarkada. Erakundea 1958an sortu zen eta geroztik Euskal Herriko artista gehienengan, modu batean ala bestean, eragina izan zuen. Hamarkada hura Euskal kulturaren berpizkundearen hamarkada izan zen (Agote, 2014), eta kultur alor guztietan mugimendu berriak sortu ziren. Euskarari dagokionez, kontuan hartzekoa da diziplina guztietan egin zen hizkuntzaren hautua, euskaraz izan baitziren sorkuntza gehienak, Euskaltzaindiak euskara baturako pausoak ematen zituen bitartean. Jarrai, Goaz edo Geroa bezalako antzerki talde modernoak sortu ziren, bai eta film esperimental zenbait, Nestor Basterretxea eta Fernando Larrukerten eskutik. Gainera, 1965ean, Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azoka antolatu zuen Gerediaga Elkarteak lehendabiziko aldiz, eta, aldi berean, euskal literatura garaikidearen lehen fruituak agertzen hasi ziren (Txillardegiren *Leturiaren egunkari ezkutua*, Arestiren *Harri eta herri...*). Jorge Oteizak *Quousque tandem....!*, euskal arimaren interpretazio estetikoak argitaratu zuen 1963an, eta haren ideiek eragin handia izan zuten ondoko belaunaldiengan.

Ikusi dugunez, hainbat kultur mailatan aldaketa nagusiak gertatu ziren urte haietan, baita kantagintzan ere; Euskal Herrikan kanpo bilatu —eta aurkitu— zituzten erreferenteak garaiko euskal abeslari eta musikariek. Ameriketako Estatu Batuetatik folk berria eta protesta kantaren eragina etorri ziren Bob Dylanekin, eta Hego Amerikatik, aldiz, Atahualpa Yupanqui eta Violeta Parra bezalako kantautoreak. Europatik ere heldu ziren haize berriak Euskal Herrira Frantziako *chanson* modernoaren parte ziren George Brassens eta Jacques Brel kantariekin, baina, batez ere, Kataluniako *Nova Canço Catalana* mugimendurekin du antzekotasun handiagoa garaiko euskal kantagintzak. 1959an sortutako eredu horri jarraituz Euskal Herrian *Euskal Kantagintza Berria* mugimendu kulturala sortu zen 1961ean. Urte horretan, Mixel Labegerie lapurtar abeslari eta

politikariak magnetofoi batean grabatutako kantu zenbait argitaratu zituen, eta une hori da, hain zuzen ere, euskal kantagintza modernoaren abiapuntutzat hartzen duguna (Eskisabel, 2012:12).

Euskal kantu zaharrei forma berriak emanez, betiere gai politikoak eta sozialak uztartuz, musikari andana bat ibili zen urte horietan zehar kantautore moduan, bakarka, aurreko urteetako taldean abesteko ohitura alde batera utziz. Aldaketa horren «Aita ideologiko»-tzat dute askok Nemesio Etxaniz apaiz azkoitiarra, 50eko hamarkadaren hasieran honakoak esan zituen:

Kanta berrietara zaletutako gazteak gure kanta zarrez gogaitu, aspertu egiten dira. Errikanta oiek, zinetakoen aldean, motzak, gexak, gatz-gabeak dirala, uste dute. Gure kanta zar asko gaiñera, musikaz ain bikain diralarik, oso itz arloitez jantziak dauzkagu. Nere iritxiz, euskal olerkariak lan au egin bear ligukete: lengo doñu zarrei, letra berria sortu, itz apañagoak ezarri: gaurko gaztediari atsegiñago zaizkion maitasun-itzak erantsi. Onela gure kanta zarrak, soiñeko atsegiñagoz erakutsi. Orrez gañera, kanta berriak sortu ditzagun. Au eresgile edo konpositore diranen lana dezu: ta Euskalerrian len ontan maixu diran asko ditugu. Sortu bitzate beaz urtero onelako doñu beri batzuek, erdal-aideak bezela, gure gaztean ezpañetan zabal ditezen. Kanta berri auek, era danetakoak bear ditugu, bai euskal-usaidunak eta bai kanpo-aizedunak ere. Gaurko dantza aideak, tango, rumba, fox eta abar, erri guzietara zabaldu zaizkigu, ta gure apaiz-biotzak min artu arren, gure errian bota dituzten sustraiak ezin uka genitzake.

(Etxaniz, 1951: hitzaurrea)

Etxanizek aipatutako doinu zaharrei letra berriak jarri zizkieten, besteak beste, Soroak eta Kontrapuntoak taldeek 60ko hamarkadan, eta esan daiteke hitzez hitz bete zela azkoitiarrak idatzitakoa. Gainera, berak ere euskarara ekarri zituen momentu horretan modan ziren doinuak: runbak, tangoak, pasodobleak.... Nolabait, hura izan zen modu batean ala bestean aldaketa hori posible egin zuena. Geroztik, gure imajinario kolektiboan gaur egun arte iraun duen taldea Ez Dok Amairu dela esan genezake, indar handiagoarekin heldu baitzen, Labegerieren bide beretik.

1965ean kantariz, musikariz, idazlez, artistaz eta dantzariz osatutako kolektibo bat sortu zen. Eskisabelen (2012: 14) hitzetan, taldearen helburuak bi ziren: «Herri kantutegi tradizionala gaurkotzea eta kanpoko eraginetatik —Frantziako *chanson*-etik, AEBetako protesta kantatik, Hego Amerikako kantagintzatik...— edanez kantu berriak sortzea [...]». Gainera, kantu horiek ez zituzten ohiko kontzertuetan ematen, baizik eta diziplinarteko emanaldietan, dantza eta poesiarekin lotuta. Musikariei dagokienez, Mikel Laboa, Benito Lertxundi eta Xabier Lete genituzke kantautore entzutetsuenak, gerora gitarra batez lagundurik bakarlari moduan jardun dutenak, eta, paradoxikoa dirudien arren —egun ez baitu inork ukatzen haiena euskal musika denik—, gitarra «espainola»-rekin aritzeak «traidore» bihurtzen omen zituelako ideia zabaldu zen sasoi hartan (Eskisabel, 2012: 12), 2020an musika komertziala euskaraz egitea batzuen iritxiz gaizki ikusia den bezala. Urte batzuk geroago, garaiko egoera politikoak bultzaturik, kolektiboaren segida hartu zuten kantari

gazte batzuek. Diktaduraren bukaerarekin aldaketa politikoak etorri ziren, eta euskal kantagintza ez zen atzean gelditu. Garai hartako kantautore ospetsuak ditugu Pantxoa eta Peio, Imanol Larzabal, Urko, Manex Pagola eta Guk taldea, besteak beste.

### **2.2.2. 1970-80: Gitarra «amerikanoa»**

Euskal Kantagintza Berria oraindik ere jardunean zegoenean, haize berriak etorri ziren Europa iparraldetik, gitarra «espainola»-tik gitarra «amerikano»-ra; klasikotik elektrikora. Ipar eta Hego Euskal Herrian kantautorearen irudia rock eta pop taldeek estali zuten, berriz ere aldaketa garai bat aurreikusiz. Iparraldeari dagokionez, Niko Etxart izan zen figura garrantzitsuenetako bat. Rock & Rolla euskaraz —zubereraz— egiten ahal zela frogatu zuen altzürükütarrak, eta gauza bera egin zuten folka eta rockarekin Errobi taldekoek, Anje Duhalde eta Mixel Ducauren gidaritzapean (Eskisabel, 2012: 20). Bestetik, Hegoaldean Itoiz genuke adibiderik inportanteena estiloari dagokionez, garaian Europan eta Amerikako Estatu Batuetan modan zen rock progresiboa eta popa ekarri baitzuten euskarara, ondoko talde guztietan eragin zuzena izanik.

Hala ere, zalantzarik gabe, benetan mugimendu indartsuena Euskal Rock Erradikalarena izan zen. Talde esanguratsuenak Hertzainak, Kortatu, Zarama edo Delirium Tremens izan ziren arren, espainolez abesten zuten talde asko sartu ziren etiketa horren barnean, betiere ezaugarri nagusia kritika sozial eta politikoa izanik. Musika estiloari dagokionez, esan daiteke bat egiten zutela erreferenteetan, eta argi eta garbi Ingalaterrara eta Ameriketako Estatu Batuetara begira zeudela (Eskisabel, 2012: 22). The Clash, Sex Pistols, Ramones edo The Specials bezalako taldeak imitatuz ingelesezko musika euskarara ekartzeaz arduratu ziren eta nazioartekoa zena euskalduntzen ahalegindu. Gainera, laster bilakatu ziren garaiko gazteen erreferente eta horrek punk edo ska estiloak betidanik euskaldunak izan direlako ideia zabaltzen lagundu zuen, euskal munduan normaltasunez txertatuz.

### **2.2.3. XXI. mendea: aldaketa konplexua**

Lehenagoko garaietan ikusi moduan, erreferente berriak sortzeko momentuak aldaketa garaiak izan ohi dira, eta, aurretik ingurune anglo-saxoia eredu hartuta egin zen modu berean gaur egun ere antzeko prozesu batean gaudela esan genezake. Urteetan zehar oraindik ere 70eko eta 80ko hamarkadetako musikariak izan dira euskal erreferente inportanteenak eta, nolabait, gaur egun hori aldatzen ari da.

90eko hamarkadatik hona, esan genezake aldaketa handiak gertatu direla euskal musikan, eta aldaketa horien ezaugarri nagusia estilo berrien etorrera izan da, bi adibide nagusirekin. Batetik, 1990ean, Kortatu desegin eta bi urtera hain zuzen ere, Iñigo eta Fermin Muguruza anaiek «hip hop kultura (kantua, dantza, esteka...) euskarara ekarri zuen lehen taldea» (Eskisabel, 2012: 28) sortu zuten: Negu Gorriak. Erabili zituzten erreferentziak Ameriketako Estatu Batuetatik zetozen, eta geroztik euskal hip-hop kulturaren ezinbestekoa bihurtu da taldearen lana. Bestetik, nahiz eta estilo aniztasun handia egon urte haietan, beste aldaketa nagusia heavy metalarekin etorri zela esan genezake. Talde aitzindaria Su Ta Gar izan arren, ondotik talde andana sortu zen Euskal Herrian metal musikaren beste adar batzuetatik, eta, zalantzarik gabe, Berri Txarrak izan zen urte haietan sortutakoen artean ospetsuena, euskal talderik internazionalena (Eskisabel, 2012: 40). Ondorengo urteetan hainbat taldek hartu zieten segida 90eko hamarkadakoei, eta gazteen artean indar handia izan dute, hala nola Gatibu, Vendetta edo Esne Beltza.

Azken urte hauetan teknologiak dena hartu du gure munduan; dena digitalizatu da, baita musika ere. Kantuak disko eta biniloetan entzutek *streaming* bidez entzutera pasa da jendea, hots, plataforma digitaletan, eta bideoklipek berebiziko garrantzia hartu dute musika hedatzeko orduan. Musikarien zeregina, gainera, ez da soilik musika egitea, baizik eta irudi jakin bat proiektatzea sare sozialetan, gazteen erreferentzia izaten jarraitzen baitute aurreko garaietan bezala, eta egun, gazteak sare sozialetan daude, eta ez hainbeste kalean.

Azken urteetan rock taldeak albo batera geratu dira (nahiz eta egon badauden), doinu eta erritmo berriei bidea irekitzeko. Egoera honetan, Ameriketako Estatu Batuetatik etorritako rapa, trapa edo musika elektronikoa euskaraz egiten duten hainbat talde eta bakarlari agertu dira azkenaldian, eta hauek dira egun ditugun adibide aipagarrienak: Zetak, Nizuri Tazuneri, Onki Xin, Maisha MC.... Aurreko garaietan gertatu zena ikusita, ez da harrizkoa oraindik ere estilo berri hauek «euskal musika»-tzat guztiz onartuak ez egotea. Nolabait, euskal kultura tradizioarekin lotzen dugu askotan, baina hizkuntza berarekin du zerikusia batez ere. Txillardegik 1984an «Euskal Kulturaren zapalketa» testuan (apud Iztueta, 2015: 287) kulturen inguruko gogoeta egin zuen, eta kulturen elementu osagarriak bereizi zituen. Txillardegirentzat herri bakoitzak bere kultura du, eta kultura horien elementu osagarriak bi taldetan sailkatzen dira: alde batetik, izaera fisikoa duten elementuak (teknologiaren taldea deitzen dena) eta bestetik, izaera espiritualak dutenak, mundu sinbolikoan kokatzen direnak. Hori horrela izanik, Iztuetak (2015: 287-288) honakoa gehitzen du:

Hizkuntza, kulturaren elementu osagarria den arren, ezin dugu ez talde batean, ez bestean sailkatu. Gaur egun, ez teknologiaren esparruan, ez mundu sinbolikoaren eremuan aurkituko dugu herri baten kultura bereizgarri egingo duen elementurik. Izan ere, kanpora begira teknologiaren arloan ezin aurki liteke ezberdintasun nabarmenik eta barnera begira, aldiz, mundu sinbolikoa osatzen duten elementuek klase interesen marka dakarte.

Horrela, beraz, gaur egun ez dugu herrien arteko kulturen ezberdintasunak Txillardegik egindako analisiaren tresnekin sailkatzeko aukerarik, eta geratzen zaigun ezaugarri bereizgarri bakarra hizkuntza da. Hortaz, Iztuetaren ideia kontuan hartuz gero, esan dezakegu trapa euskaraz egitea euskal kultura dela, izan ere, «euskal identitatea euskararen datza» (Iztueta, 2015: 288).

Bukatzeko, rapaz eta trapaz gain, pop musikan ere izen jakin batzuk nabarmendu dira azkenaldian, euskal pop «izarrak»: Izaro abeslari bizkaitarra, Nøgen eta Huntza gipuzkoarrak edo ETS (En Tol Sarmiento) arabarrak. Modu berean, interesgarria da (jakinik Alaitz BHIko ikasgeletan izanen garela) Iruñerriko taldeen gorakada aipatzea, azken urteetan asko izan baitira sortutakoak: Skabidean, Herdoil, Baizera!, Leizeak, StreetWise, Burutik...

### **2.3. Euskal musika eta literatura: zenbait adibide**

Gurean, Euskal Herrian, ezagunak dira literatura eta musika uztartu dituzten taldeak eta idazleak, eta literatura horren barnean, gainera, ahozko euskal literatura aurkitzen da, historikoki oso inportantea izan dena.

Baladak, kopla zaharrak, oles egiteko kantak, sehaska kantak, eta bertsolaritza ere sar genitzake ahozko literatura horretan. Kopla zaharrei dagokienez, adibidez, Hiru Truku folk taldearen adibidea genuke, Ruper Ordorikak, Joseba Tapiak eta Bixente Martinezek 1994an sortua. Nafarroako eta Bizkaiko kantu zaharrak (letra hutsak, musikarik gabekoak) berreskuratu zituzten eta molde berrian eman, hiru disko kaleratuz. 2005ean Argia aldizkarian argitaratutako elkarrizketa batean (Gurrutxaga, 2005), taldeak tradizioaz eta modernitateaz jardun zuten:

Geure modura ematen ditugu kantuok. Ez dugu uste tradizioa hor nonbait geldirik dagoen ezer denik, baizik eta etengabeko aldaketan heltzen zaiguna. [...] Dena da zilegi eta hemen denetarik egin da musika tradizionalan oinarrituta, baina guk era batera nahi dugu. Zuk diozu ohitura izan dela folk formatuan ematea, baina guk uste dugu aski gauza modernoa dela musika tresna akustikoekin-eta aritzea. [...] Kantu zaharrak eta doinu tradizionalak gaurko moldeekin ematea nahiko gauza berria izan da eta doinu tradizionaletan oinarrituriko lanak alor guzietan entzuten ahal dira: jazzean, garaikidean, rockean...

Balada eta kopla zaharrez gain, gure herrian bertsolaritzak izan du batez ere indar handien ahozko literatura horren barnean. Bertso jarriak (ez bat-batean sortutakoak) XVIII. mende bukaeratik dokumentatuak daude, baina ez, aldiz, bat-bateko bertsoak, nahiz eta pentsatzekoa den

garaiko bertsolariak bat-batean ere ariko zirela (Egaña, Garzia & Sarasua, 2001: 20). Esan daiteke, beraz, XX. mendearen erditik aurrera hasi zirela bat-bateko bertso horiek grabagailuekin grabatzen, eta hor hasi zela egun ezagutzen dugun bat-bateko bertsolaritzaren historia. Hortik aurrera, bertsolaritza horrela sailkatu da eremuka: ikusgarri edo saio publikoa, sariketa eta txapelketa, jardun ludiko ez-formala: bertso eskola, irakaskuntza orokorreko eduki eta ariketa, eta hedabideetako azpi-generoa (Egaña, Garzia & Sarasua, 2001: 38). Bestetik, musikarekin izan dezakeen loturaz, Unai Elorriaga idazlearen ustez (1995: 197) poesiarentzat goi mailako balio literarioak gorde diren moduan, bertsolaritzari herri-mailako jarduera arin izateko aukera eman zaio. Horrek, nolabait, bertsolaritza literaturatzat hartzea oztopatu duela esan daiteke, eta aldi berean musikarekin lotzeko aukera erraztu. Nahasketa honetan, Unai Iturriaga eta Igor Elortzaren 7 Eskale musika taldea genuke aitzindari, eta geroztik, hainbat bertsolarik osatu dituzten taldeak, gehienetan bakarkako proiektu gisa. Karidadeko Benta eta Hezurbeltzak dira Jon Maia gipuzkoarrak sortutakoak, eta 2zio rap taldea Odei Barroso urruñarrarena.

Ikusi dugunez, musikaren eta ahozko literaturaren arteko lotura gauza arrunta izan da Euskal Herrian, baina baita literatura idatziaren eta musikaren artekoa ere. Euskararen egoerak bultzatuta, talde asko euskal literaturako idazleen olerkiak musikatzen hasi ziren 70/80ko hamarkadetan, neurri batean literaturaren aldarrikapena eginez. Konexio horren adibide nagusiak ditugu ondokoak: Oskorri eta Gabriel Aresti (*Gabriel Arestiren oroimenez* diskoa), Xabier Lete, Ruper Ordorika eta Bernardo Atxaga (*Hautsi da anphora* diskoa), Hertzainak eta Itxaro Borda (*Irauten, Larru beltzak, Bi minutuero...*) eta Gose eta Joseba Sarrionandia (*Gosariak* diskoa).

## **2.4. Ikastetxearen eta inguruaren ezaugarriak**

Gure ikerketa Barañaingo Alaitz BHI bigarren hezkuntzako ikastetxean kokatu dugu. Segidan, beraz, ikastetxearen eta inguruaren ezaugarriak deskribatuko ditugu.

VI. Inkesta Soziolinguistikoko datuei begira (Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua & Euskararen erakunde publikoa, 2017), ikus daiteke azken urteetan euskaldunen kopurua gora egin duela Nafarroan eta EAEn, eta behera, aldiz, Ipar Euskal Herrian. Horrela, 1991n Nafarroan euskaldunak % 9,5 ziren eta 2016an, aldiz, % 12,9. Nafarroako datuak sakonki aztertuz gero, ikusiko dugu euskaldun horien % 25,8 16-24 urte bitartekoa dela Nafarroa osoan, baita Iruñean ere, eta eremu mistoko datuak zertxobait hobeak dira (% 27,3). Datu horiek euskarazko ereduetan gertatu den eskolatzearen isla direla ondoriozta dezakegu, bai eta ere euskaldunen hazkundera

gazteenetatik ari dela zabaltzen. Ikerketa honetarako, beraz, profil horretako gazteen musika kontsumoa aztertzea erabaki dugu, Nafarroako euskaldunen gehiengo demografikoa baitira, eta etorkizunean hala izanen direlako: gazteak, hiritarrak eta hein batean eskolaren bidez euskaldunduak.

#### **2.4.1. Barañain**

Aipatutako Alaitz BHI ikastetxea Iruñerriko Barañain udalerrian kokatzen da. Azken 80 urteetan, Zizurko zendeako herrixka txiki bat izatetik (100 biztanle ingurukoa), INEren azken datuen arabera (Instituto Nacional de Estadística, 2019) Nafarroako laugarren hirigunerik jendeztatuena izatera igaro da, 20.199 biztanlerekin. Beste udalerrri batzuetan lan egiten dutenen bizitokia da, eta biztanle aktibo horiek hirugarren sektorean (osasuna, administrazio publikoa, hezkuntza eta merkataritza) eta bigarrenen (metalezko transformazio industria, mekanika industriak, industria laguntzailea, automobilgintza, eraikuntza...) egiten dute lan batez ere (Barañaingo Udala, 2020). Langile horien urteko batez besteko errenta 13.402,15 eurokoa zen 2017an, Nafarroakoa (12.520 €) baino pixka bat altuagoa (Nastat, 2017). Ekonomiaz eta biztanleriaz gain, kultura arloan ere leku aipagarriak ditu Barañainek, hala nola Auditorioa eta Kultur Etxea, areto askorekin. Bestalde, eta Mendebaldean kokatzen bada ere, Pablo Sarasate musika kontserbatorioarekiko gertutasunak ikasle asko hurbiltzen ditu Barañainera, Alaitz institutuan ikusi dugun moduan.

Bukatzeko, euskararen egoerari dagokionez, eta 2011ko datuak kontuan hartuz (Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua, 2011), Barañaingo elebidunen kopurua % 11,62koa zen, Nafarroako eremu mistoko datuekin bat eginez (% 12,41). Elebidun guztiak kontuan hartuz, gainera, 15-24 urte artean, hau da, aztergai ditugun ikasleen adinetan, 1991tik 2011ra elebidunen kopurua % 4,94tik % 26,85era igo dela ikus daiteke, nahiz eta euskararen erabilera etxean % 2ra ez den iristen.

#### **2.4.2. Alaitz BHI**

Alaitz BHI D ereduako bigarren hezkuntzako institutu publikoa da, Nafarroako Gobernuak egindako Foru-Agindu baten bidez 1995ean sortua. Agindu horrek G eta D ereduak bereizi zituen, eta ikastetxe berri bat sortzeko prozesua hasi zen. 1999az geroztik egun ezagutzen dugun eraikinean izan dira ikasle eta irakasleak. Gaur egun, bigarren hezkuntzako maila guztiak eskaintzen dira bertan, eta 370 ikasle, 40 irakasle inguru eta 10 langilek osatzen dute (Alaitz BHI D ereduako Institutu publikoa - Barañain, 2020).



Eskaintza akademikoari dagokionez, Alaitzen DBHko lau mailak ikasteko aukera dago. Maila bakoitzean bi ikasgela daude, eta, beraz, zortzi dira DBHko gela guztiak. Batxilergoan, aldiz, ikasgela gehiago daude, eta eskaintza zabala. Ohiko «zientzietako» eta «letretako» (Humanitateak eta Gizarte Zientziak) batxilergo modalitateak ikasteko aukera dago, baina baita Arte eszenikoak, Musika eta Dantza batxilergoa ere. Nafarroan azken modalitate hori ikasi nahi dutenek Alaitzen dute aukera bakarra, eta horrek Nafarroa osoko ikasleak erakartzen ditu.

Bestetik, institutuan musikaren presentzia oso handia dela esan daiteke. Urtero musikal bat antolatzen dute musika irakaslearen laguntzaz, eta batxilergo artistikoko ikasle guztiak parte hartzen dute. Entseguak klase orduetan izan ohi dira eta batzuetan moldaketak egin behar dituzte ordutegian, beste ikasgai batzuen orduak hartzen baitituzte. Nolabait, inplizituki, irakasle eta ikasle guztiak hartzen dute parte.

## **3. ARLO PRAKTIKOA**

Datozen orrietan arlo teorikoan landutako ideiak eramanen ditugu praktikara. Horretarako, bi azpiataletan zatituko dugu arlo hau: inkesta eta emaitzak alde batetik (§ 3.1.), eta sekuentzia didaktikoa bestetik (§ 3.2.). Inkestan lortutako datuetatik abiatuta, sekuentzia didaktiko baten proposamena sortu dugu, edozein irakaslek DBHko laugarren mailan erabiltzeko aukera izan dezan.

### **3.1. Ikasleek duten musikari buruzko ezagutza: inkesta eta emaitzak**

Atal teorikoan ikusi dugunez, musikaren erabilera hizkuntzen irakaskuntzan tresna baliagarria dela frogatu da, bai eta hizkuntzarekin duen lotura naturala dela. Hori kontuan hartuz gero, gure ikasleen musika kontsumoa aztertzea interesgarria da gerora erreferente horiek Euskal Hizkuntza eta Literatura ikasgaietan erabili ahal izateko.

Klase emateko orduan, irakasleek baliabide zenbait izan ohi dituzte eskura, aurretik sortutakoak ala material berriak, baina, askotan, ikasleen gustuak eta erreferenteak kontuan hartu gabe egiten dira. Nolabait, irakasleak klasean erabiliko dituen tresnak aukeratu eta baliabideak sortzen dituzte, bere modura egiten du, berak egokien ikusten duen modura. Gerta liteke, aldiz, ikasleak egoki ez ikustea, irakasleak erabiltzen dituen erreferenteak urrun sentitzen baititu. Kasu

honetan, pentsatzekoa da ikaslearentzat zailago izanen dela ariketen bidez lortu nahi diren helburuak lortzea, gertutasun hori sentituko ez baitu, eta, nolabait, arrotzak izanen baitira berarentzat. Modu honetan, uste dugu irakasleentzat garrantzitsua dela beren ikasleen gustuak eta erreferenteak ezagutzea, horiek klasean erabili ahal izateko. Kasu honetan, inkesta honen bidez musikari dagozkionak ezagutzen saiatu gara, atal teorikoan azaldu dugun moduan, musika hizkuntzaren irakaskuntzarako tresna onuragarria baita, eta baliabide baliagarria irakasleentzat, askotan alde batera uzten dugun arren.

### **3.1.1. Helburuak**

Sarreran aipatu ditugun helburu orokorrak kontuan hartuz, inkesta honen helburu espezifikokoak ondokoak dira.

Lehenik, inkesta honek Alaitz BHIko ikasleen musika kontsumoa ezagutzea eta aztertzea du oinarrizko helburu. Musika kontsumoaz ari garenean estiloen eta hizkuntzaz ari gara batez ere, eta hori aztertu nahi dugu. Bestetik, inkesta honen bigarren helburu nagusia sekuentzia didaktiko bat sortzea litzateke, betiere lortutako emaitzetatik abiatuta. Gainera, inkestaren helburu nagusietako bat inkesta bera beste irakasleei eskaintzea ere bada, ikasleen erreferenteak eta gustuak ezagutzeko baliagarria baita.

Bigarrenik, gaur egun modan dauden euskal taldeak (atal teorikoan aipatu ditugun horiek, alegia: Zetak, Izaro, ETS, Nøgen...) entzuten dituzten ala ez jakin nahi dugu. Talde horietaz gain, trap/rap taldeak ezagutzen dituzten ikusi nahi dugu, bai eta zein hizkuntzatan entzuten dituzten. Musika entzuteko zein plataforma erabiltzen dituzten eta gustuko taldeak sare sozialetan jarraitzen dituzten ala ez jakin nahi dugu.

Hirugarrenik, ikasleek Iruñerriko taldeak ezagutzen dituzten ala ez jakin nahi dugu. Atal teorikoaren § 2.4. atalean (*Ikastetxearen eta inguruaren ezaugarriak*) ikusi dugun moduan, batxilergo artistikoa dela eta, Alaitz ikastetxeak lotura estua du musikarekin eta honek, nolabait, batxilergoan ezagutza eta kontsumoa altuagoa izanen dela pentsatzera garamatza, eta hori aztertu nahi dugu.

### 3.1.2. Metodologia

#### 3.1.2.1. Inkestaren diseinua

Azaldu ditugun helburuak lortzeko, hainbat adinetako ikasleei inkesta bat egin zaie musika ohituren inguruko galderekin. Inkesta hori *GoogleInprimakiak* plataforman sortu dugu, eta ikasleei emailez bidali diegu.

Hastapenean, informazioa elkarrizketa bidez lortzea zen gure helburua, talde txikietan ikasleak bilduz, eta, ondoren, inkesta txiki bat pasarazi. COVID-19ak sortu duen egoerarekin, ordea, ezinezkoa izan zaigu elkarrizketa horiek aurrera eraman ahal izatea, eta inkestaren diseinua aldatzeko beharra izan dugu. Horregatik, eta mundu digitalak eskaintzen dizkigun tresnak erabiliz, inkesta online egiteko ideia izan dugu, *GoogleInprimakiak* plataformari esker.

*GoogleInprimakiak* Google enpresak sortutako tresna bat da, inkestak online egiteko balio duena. Inkesta editatzen hasteko, gure gmail-eko kontutik sortu behar dugu fitxategia, eta galderak sortzen hasi. Aplikazio honek ematen digun baliabide interesgarri bat galderaren nolakotasunean datza. Galderaren izenburuaren ondoan dagoen laukizuzenean klikatuz gero, menu zabalgarri bat agertuko zaigu, eta bertan galdera mota hautatzeko aukera izanen dugu. Horrela, beraz, erantzuna idatziz izatea eska dezakegu (erantzun laburra edo paragrafoa), ala guk emandako erantzunen araberakoa (aukera anitzetakoa, aukera bakarrekoa, ordenatzekoa edo eskala linealean emandakoa). Askatasun honek inkesta gure erara moldatzeko aukera ematen digu, eta ikasleentzat ere betetzen errazagoa da.

Inkesta sortu eta gero, esteka bidaltzea besterik ez zaigu falta. Horretarako, gure kasuan, Googleko *ClassRoom* aplikazioa erabili dugu, horrekin lan egiten baitute ikasle guztiek etxetik. Bertan zeregin bat sortu dugu eta inkestaren esteka bidali, ikasleek beren etxetik erantzun dezaten.

Inkesta bukatutakoan, ikasle bakoitzak «bidali» laukian klikatu eta erantzunak zuzenean guri helduko zaizkigu, inprimakian sailkatu eta grafikoak eta taulak automatikoki sortuko dira. Erantzunak ikusteko hiru aukera ditugu: inkestaren laburpen bat (erantzun guztien grafikoak), erantzunak galderaka edo ikasle bakoitzaren erantzun guztiak. Erantzunak, gainera, kalkulu orri batean deskargatzeko aukera dugu, eskuz denak bildu behar izan gabe.

#### 3.1.2.2. Galdera motak/Inkestaren atalak

Osotara 32 galdera egin ditugu (ikus 1. eranskina). Alde batetik, galdera irekiak daude eta horien bidez, ikasleen iritziak eta gustu pertsonalak bildu ditugu. Esate baterako, entzuten dituzten taldeak aipatzeko eskatu diegunean, galdera ireki baten bidez egin dugu. Bestetik, galdera itxiei

dagokienez, aukera bakarrekoak eta aukera anitzekoak erabili ditugu, ezagutzari buruzko datuak biltzeko, batez ere. Aukera bakarreko galderen artean eskala linealeko batzuk sortu ditugu, 1etik 5erakoak, «oso gutxi»-tik «asko»-ra.

Inkesta lau ataletan zatitu dugu. Hasteko, sarrera gisa, datu berezien inguruko galderak egin ditugu, ikasleen eta erantzunen sailkapena egingarria izan dadin. Atal honetan sexua, adina eta klasea zehaztea eskatu zaio ikasle bakoitzari. Bigarren atalean, egunerokoan musikak duen presentziaz galdetu zaie ikasleei, hau da, non/noiz/nola entzuten duten musika. Hirugarrenean, musika motak eta hizkuntzak izan ditugu hizpide, eta galderak kontsumoari buruzkoak izan dira (*Zer musika mota entzuten duzu? Zer hizkuntzatan?...*). Azkenik, euskal musikari buruzko galderak egin ditugu, lau azpitaldetan banatuak: ezagutzari buruzkoak (rap/trap estiloak, Iruñerriko taldeak); euskal talderik gustukoena; musikariak eta sare sozialak, irudiaren garrantzia; eta klasean musika erabileraren inguruko galderak.


### 3.1.2.3. Lagina

Hasierako asmoa inkesta batxilergoko ikasleei egitea zen, izan ere, erantzunak osoagoak eta musika kontsumoa handiagoa izanen zirela aurreikusten genuen. Halere, egoki ikusi dugu DBH2ko talde bat lagin honen barnean sartzea hainbat adinetako gazteak aztergai izateko, eta adin horien arteko aldaketak egotekotan, horiek aztertu ahal izateko. Horrela, beraz, gela honetaz gain, batxilergoko bigarren mailako bi gela eta lehenengo mailako gela bat hartu ditugu lagina osatzeko.

Maila horietan osotara 85 ikasle daude, eta guztiei helarazi zaie inkesta. Horietatik 63k erantzun dute, baina, halere, kopurua aski ona da gure ikerketarako. Gainera, lagin osoa gelaka nahiko orekatua izan da, 1. grafikoan ikus dezakegun moduan. DBH2ko gelatik 16 ikaslek, batxilergoko lehenengo mailatik 14 ikaslek, batxilergoko bigarren mailako 2A gelatik 17k eta 2C gelatik 16k erantzun dute inkesta.

**1. grafikoa.** Inkesta erantzun duten ikasleen banaketa gelaka.

Zure klasea:  
63 erantzun



Ikasketa motei dagokienez, batxilergoko lehenengo mailako gela mistoa da, zientzietako eta letretako ikasleekin. «Euskara sakontzen» hautazko ikasgaia dute, eta, beraz, ikasturte guztiko gela guztietako ikasleak daude talde horretan. Batxilergoko bigarren mailako taldeei dagokienez, aldiz, 2A artistikoa da eta 2C zientifikoa eta letretakoa.

### 3.1.3. Emaitzak

Inkestaren emaitza absolutuak aztertuko ditugu datozen lerroetan. Horretarako, inkesta sei ataletan zatitu dugu, gaien arabera: *musika zure egunerokoan, musika motak eta hizkuntzak, euskal musika, Iruñerriko taldeak, irudia eta sare sozialak eta musika ikasgelan.*


#### 3.1.3.1. Musika zure egunerokoan

Lehenengo azpiatal honetan musikaren lekua azertu dugu, hau da, musikaren presentzia ikasleen bizitzan. Datuei begira, esan genezake musika oso inportantea dela Alaitzeko ikasleentzat, izan ere, % 71,4k astean zehar musika asko entzuten duela adierazi du eta % 69,8k musika oso garrantzitsua dela beren bizitzan (ikus 2. eta 3. grafikoak).

**2. grafikoa.** Musikaren kontsumo maiztasuna.

Zer maiztasunarekin entzuten duzu musika astean zehar?


63 erantzun



**3. grafikoa.** Musikaren garrantzia ikasleen bizitzan.

Inportantea da musika zure bizitzan?

63 erantzun




Ikusi dezakegenez, gainera, 1 eta 2 aukeretan oso ikasle gutxi ditugu; bi ikasle daude musika gutxi entzuten dutenak astean zehar, eta bi dira musikari garrantzi handirik ematen ez diotenak ere.

Musika entzuteko orduan, aukera anitzeko galdera honetan (ikus 4. grafikoa) ikasle gehienek *streaming* bidez egiten dutela adierazi dute, Youtube (% 85,7) eta Spotify (% 73) plataformetan. Diskoak erosten dituztenen kopurua, aldiz, txikiagoa da, nahiz eta adierazgarria den. Musika online entzuteko joera honek argi erakusten digu zein den gaur egun musika kontsumitzeko modua, batez ere gazteen artean.

**4. grafikoa.** Musika kontsumitzeko plataformak.


Eta non entzuten duzu?

63 erantzun




Ikus dezakegu laginaren erdiak kontzertuetan entzuten duela musika, eta ondoren egin diegun *Zein testuingurutan zoaz gehienetan kontzertuetara?* galderari, % 81ek (51k) *herriko/auzoko jaietan* erantzun dute (5. grafikoa). Hortaz, pentsatzekoa da Iruñerriko taldeak ikusteko aukera gehiago izanen dituztela, gero ikusiko dugun moduan. Gainera, 37k (erdiak baino gehiagok) euskal taldeen kontzertuak ikusi dituzte azkenaldian, eta, beraz, euskal taldeak entzuten dituztela esan dezakegu.

**5. grafikoa.** Kontzertuak ikusteko tokiak.



Musika *streaming* bidez entzuten dutela ikusi dugu, baina diskoak osorik entzuteko joera ez dago orokortua, eta ikasle gehienek (% 78,6k, hots, 49 ikaslek) abesti solteak entzuten dituztela erantzun dute, 6. grafikoan ikus dezakegun moduan. Horren arrazoia Youtuberen eragina izan daiteke, bertan bideoklipak daudelako gehienbat, eta ez hainbeste diskoak osorik entzuteko aukera. Bestetik, % 57,1k (36k) musika ikasteko edo etxeko lanak egiteko erabiltzen du, hau da, ikasleen erdia baino gehiago ohituta dago lanak egin bitartean musika erabiltzera (7. grafikoa).

**6. grafikoa.** Musika entzuteko modua: diskoak vs abestiak. **7. grafikoa.** Musikaren erabilera ikasteko.




### 3.1.3.2. Musika motak eta hizkuntzak

Bigarren azpiatal honetan, alde batetik, musika motei buruz galdetu zaie ikasleei, haien gustuak ezagutu ahal izateko. Hori horrela, gehien entzuten dituzten hiru musika estiloak aukeratzeko eskatu zaie, eta aurreikusten genuen moduan, gaur egun modan dauden estiloak (§ 2.2.3. puntuan aipatu ditugunak) entzuten dituzte ikasle gehienek, 8. grafikoan ikus dezakegun moduan.

**8. grafikoa.** Gehien entzuten diren musika generoak.

Aukeratu gehien entzuten dituzun 3 musika generoak


63 erantzun



Sailkapena laburbiltzeko, gehien entzuten diren hiru generoak bereizi ditugu, baina rapa eta trapa talde berean sartu ditugu, haien arteko ezberdintasunak oso txikiak baitira. Gauzak horrela, gehien entzuten diren hiru generoak rap/trapa (% 57,1), reggae/ska (% 50,8) eta reggaettoa (% 47,6) dira, edo beste modu batean sailkatuak, «musika beltza» deitu genezakeena. Ehunekoetan oso hurbil pop/pop-rocka eta rocka genituzke, arlo teorikoan aipatu ditugun pop «izarrak» lirartekeenak, alegia.

Beste aldetik, hizkuntzen inguruan galdetu zaie ikasleei, musika zein hizkuntzatan entzuten duten jakin ahal izateko. Erantzunetan lau aukera eman zitzairen (*euskara, espainola, ingelesa* eta *beste bat*), baina arazo txiki bat izan dugu. Ikasleen % 12,7k (8 ikaslek) bi edo hiru hizkuntza aukeratu dituzte, eta erabaki dugu emaitza horiek kontuan ez hartzea, galderak hizkuntza bakarra aukeratzeko eskatzen baitzuen. Emaitzak, hortaz, hauek dira: musika euskaraz % 33,3k (21ek) entzuten du eta % 54k (34k), aldiz, erdaraz (espainolez 23k eta ingelesez 11k). Beraz, esan dezakegu gehiengoak ez duela musika gehienbat euskaraz entzuten. Emaitzak 9. grafikoan ikus daitezke.

**9. grafikoa.** Musika kontsumoa hizkuntzaka.



Hizkuntzaren hautuaren zergatiaz galdetzean (*(Euskara aukeratu ez baduzu) Zergatik? Zure gustuko musika estiloak ez dituzu euskaraz aurkitzen?*), (1)en bildu ditugun erantzunak jaso ditugu. Adibide sortan erantzunak bere horretan eman ditugu, ortografia eta gramatika aldatu gabe.

(1)

- a. Ez ditut aurkitzen.
- b. Gehien bat rap entzuten dut eta ez ditut abestirik aurkitzen euskaraz;
- c. Hori da, eta gaztelerako abestien erritmoa eta estiloa nahiago dut. Ere mezuarengatik entzuten ditut gazteleraz.
- d. Ez, ez dut nire gustoko estiloak euskeraz aurkitzen.
- e. Ez, power metal gehiena nordikoa da.
- f. Euskaraz ez dago reggeton hainbeste.



g. Reggaeton gazteleraz motibatzen nau gehio.

h. Ez, euskarazko taldeek egiten duten musikak ez nau erakartzen.

i. Jazz-a, hip-hopa eta flamenkoa entzuterakoan adibidez euskaraz ez dagoelako ia musikarik, baina Berri Txarrak eta beste talde batzuk euskaraz entzuten ditut ere.

j. Ez, ez ditut aurkitzen.

k. Gehienak ez.

l. Askotan entzuten ditudalako modan dauden abestiak eta gehienak gazteleraz direlako.

m. Euskaraz ez daude ni dudan gustoko abestiak.


Beraz, esan genezake musika euskaraz entzuten ez duten ikasleek estilo jakin batzuen falta sumatzen dutela euskal musikan, eta hurrengo galderaren (*Zer musika motaren falta sentitzen duzu euskal taldeetan?*) erantzunetan hori ikusi dugu. Lortutako erantzunetan, argiki ikusi dugu ikasleek euskal musikaren barnean batez ere rap/trap eta reggaetoi estiloen falta sumatzen dutela (12k rap/trapa eta 8k reggaetoia), baina, dena dela, beste estilo batzuk ere aipatu dituzte: jazz, blues, cumbia, pop, reggae...

### 3.1.3.3. Euskal musika

Estiloez eta hizkuntzez aritu eta gero, segidan euskal musikan jarriko dugu arreta. Hasteko, ikasleei euskal musika zer den galdetu diegu galdera ireki baten bidez, eta erantzunak askotarikoak izan diren arren, ideia batzuk zenbaitetan errepikatu dira. Ikasle askorentzat «euskaraz egindako musika» den arren, tradizioaren eta gaur egungo musikaren arteko bereizketa zenbaitetan agertu da (*ohitura, herriko musika...*), bai eta euskal musika euskararen normalizaziorako eta kultura bultzatzeko balio duen musika bezala definitu ere.

Euskal talderik gustukoenak zerrendatzeko eskatu diegu ikasleei, eta talde asko aipatu diren arren, errepikatu direnak zerrendatuko ditugu: ETS (DBH2n batez ere), Huntza, Berri Txarrak, Zetak, Vendetta, Brigade Loco, Rotten XIII, Ken 7, Skabidean eta Herdoil (batxilergoan bakarrik), Arkada Social, Hertzainak, Izaro, Nøgen eta Kaleko Urdangak. Ikus dezakegunez, Iruñerriko taldeak soilik batxilergoan agertu dira, eta Hertzainak, Ken 7, Vendetta eta Berri Txarrak izan ezik (azken hauek duela oso gutxi utzi zioten jotzeari), talde guztiak gaur egun ari diren taldeak dira. Hurrengo galderan hori baieztatzeke aukera izan dugu, hots, inkesta egin duten ikasleek euskal talde berriak (azken bost urteetan edo sortutakoak) entzuten dituztela orokorrean. 10. grafikoan, beraz, 43 ikasleek talde berriak gehiago entzuten dituztela ikus daiteke.


## 10. grafikoa. Talde berriak eta zaharrak



Ezagutzari dagokionez, talde batzuk ikasle askok ezagutzen dituztela baieztatu dugu. Rap/trap-musika elektronikoa egiten duten talde batzuk zerrendatu ditugu, eta emaitzak hauek izan dira:

## 11. grafikoa. Rap-trap/musika elektronikoaren ezagutza.

RAP-TRAP/MUSIKA ELEKTRONIKOA: aukeratu ezagutzen dituzun taldeak.  
50 erantzun



11. grafikoari begira, ezagunenak, beraz, Zetak eta La Basu genituzke (45 eta 21 ikaslerekin, hurrenez hurren). Zetaken kasua sare sozialekin lot genezake zuzenean, Pello Reparazen proiektua bertan gauzatu baita eta indar handia egin baitu Instagramen hura zabaltzeko. Bestetik, La Basu genuke, euskarazko rapeko emakumezko erreferente nagusia litzatekeena. 11 ikaslek, gainera, Onki Xin ezagutzen dutela adierazi dute.

### 3.1.3.4. Iruñerriko taldeak

Iruñerriko taldeen inguruko galderak *Euskal musika* atalaren barnean kokatu ditugu galdetegian, baina aurrekoetatik bereizita azalduko ditugu.


Hasteko, Iruñerriko taldeak entzuten dituzten ala ez galdetu diegu, eta adinaren arabera aldaketa nabarmena sumatu dugu. DBHn ez dituzte Iruñerriko taldeak entzuten (batek bakarrik erantzun du baietz), baina, aldiz, beste geletan baietz erantzun dute (31k) eta talde asko errepikatu dira: Herdoil, Skabidean, Burutik, Leizeak, StreetWise, Baizera!, Sustrai Berriak... Ondoren,

Iruñerriko talde gazte batzuk zerrendatu ditugu (gaur egun jotzen dutenak) eta ezagutzen dituzten ala ez galdetu diegu ikasleei. Emaitzak 12. grafikoa eman ditugu.

**12. grafikoa.** Iruñerriko taldeen ezagutza.

Ezagutzen dituzun taldeak aukeratu.

57 erantzun




Lau talde ezagunenak, beraz, hauek dira: Skabidean (% 93), Burutik (% 77,2), Herdoil (% 71,9) eta Leizeak (% 61,4). Orokorrean, beraz, ezagutza handia dela ikusi dugu (ikusi 12. grafikoa), eta faktoreetako bat kontzertuetara joateko ohitura izan daiteke. Lehenago ikusi dugun moduan (5. grafikoa), ikasleen % 81k (51k) kontzertuak gehienetan *herriko/auzoko jaietan* ikusten dituztela adierazi dute, eta auzoko jaietan Iruñerriko taldeen presentzia oso handia izan ohi da.

**3.1.3.5. Irudia eta sare sozialak**

Gai hauen inguruan ikasleei hiru galdera egin dizkiegu: *Entzuten dituzun musikariak sare sozialetan jarraitzen dituzu?, Non? eta Garrantzitsua iruditzen al zaizu artisten irudia? Zergatik?* Lehen galderari 32 ikaslek baietz erantzun diote (13. grafikoa), eta 32 horietatik 31k Instagram aukeratu dute bigarren galderan (14. grafikoa). Beraz, gazteen artean Instagramek duen pisua oso handia dela esan dezakegu, 14. grafikoa ikusten ahal dugun moduan.

**13. grafikoa.** Ikasleek musikariak sare sozialetan jarraitzen dituzte?


Entzuten dituzun musikariak sare sozialetan jarraitzen dituzu?  
62 erantzun



#### 14. grafikoa. Ikasleek musikariak jarraitzeko erabiltzen dituzten sare sozialak.

Non? (aurrekoan EZ erantzun baduzu, ez erantzun galdera hau)

32 erantzun



Hirugarren galderari dagokionez, hots, *Garrantzitsua iruditzen al zaizu artisten irudia? Zergatik?*, esan dezakegu emaitzak oso parekoak izan direla: 24k baietz diote eta 28k ezetz. Aitortu behar dugu galdera zenbait kasutan gaizki ulertu dela (itxura fisikoaz ari ginela pentsatu dute), baina gutxiengoa izan dira. Hauek dira irudia inportantea dela esateko eman dituzten argudioak (erantzunak bere horretan eman ditugu, ortografia eta gramatika aldatu gabe):

(2)

- a. Bai, errepresentazioarengatik.
- b. Bai, ezken batean irudia da sartzen den lehenengo gauza eta lehenengo inpresioa.
- c. Bai, gure eredu direlako.
- d. Bai, haien musika entzutera erakartzeko balio du.
- e. Nire ustez, artista bat ezagutzen ez dugunean itxura zaindua ematen dutenek arreta gehiago lortzen dute.
- f. Bai. Azken finean irudi publikoak dira eta horrek pisu handia dauka gehienbat gazteentzako. «Irudi ona transmititu behar dute»
- g. Bai, influentzia asko daukatelako eta jende askorentzat adibide moduko bat dira.
- h. Bai, jende askok bere eredu jarraitzearekin amesten dutelako.
- i. Bai, haur askok ikusten dietelako.
- j. Noski. Haien irudia eta presentziaren arabera pertsona gehiago ala gutxiago interesatuko dira haien musikan.
- k. Gaur egun sare sozialetako irudia garrantzitsua da horren bidez jendeak taldeak aurkitu eta entzuten dituelako.
- l. Bai, pertsona publikoak direlako, erreferenteak direlako.

#### 3.1.3.6. Musika ikasgelan

Azken atal honen inguruan bi galdera egin zaizkie, ikastetxean musika erabiltzeari buruz. Batetik, galdetu zaie musika ikasgaitik kanpo musika erabili izan duten klaseetan (erantzunak 3.

adibide sortan eman ditugu, jatorrizko gramatika eta ortografiarekin). DBH2n erantzun dute klasean lanak egiteko noizbait erabili dutela (3. adibide sortako *a, c, d, e* eta *f*), eta ikastetxean egon garen astebetean hori ikusteko aukera izan dugu. Beste geletan adibide batzuk eman dituzte: *Eperra* kantarekin euskalkiak lantzeko (*i*), filosofia klasean *Izarren Hautsa* letra aztertzeko (*h*) eta Berri Txarraken *Maravillas* sinonimoak lantzeko (*j*). Bestetik, erabilera hori bultzatzearen alde dauden ala ez galdetu diegu, eta gela guztietan baietz esan dute (4. adibide sorta). Proposamen zenbait egin dituzte: euskararen erabilera aztertzeko, kantu zaharrak eta berriak konparatzeko (*e*), hizkuntza bera lantzeko, baloreak eta historia lantzeko (*k*), lexikoa ikasteko (*i, j*)...

**(3)**

- a. Bai, lana lasai egiteko*
- b. Euskarazko klasean letra analizatzeko*
- c. Bai. Batzuetan lan egiteko musika jartzen digute klaseko pantailan*
- d. Bai, lana egiten dugun bitartean*
- e. Bai, klasean daukagun pantalla elektronikoan, egin beharreko lana egiteko*
- f. Bai, lanean geuden bitartean musika entzuteko eta hobe lan egiteko*
- g. Ez, bakarrik euskalkiak lantzeko abesti bat ala bi.*
- h. Filosofia klase batean izarren hautsaren letra aztertzeko*
- i. Bai, adibidez euskalkiak aztertzeko (Eperra, Gatiburen baten bat...)*
- j. Bai, BTXen Maravillas sinonimoak lantzeko euskarari*

**(4)**

- a. Asko gustatuko litzaidake*
- b. Lagungarria izan daiteke*
- c. Bai, skabidean nahiko lasaia da kontzentratzeko*
- d. Ez dakit bai gustatuko litzaidake guztia politagoa egiteko baina ez dakit nola.*
- e. Bai. Euskal abesti zaharrak eta berriak konparatu edo euskerari ematen zaion erabilera aztertzea*
- f. Bai*
- g. Bai baino ez dakit ze abesti proposatuko nuke*
- h. Ongi legoke, beti daude abestietan hitz berriak, gauzak lantzeko*
- i. Bai. (Ez zait okurrizten, baina ongi egongo litzateke hiztegia lantzeko baten bat)*
- j. Bai, musika oso erabilgarria iruditzen zait lexiko berria ikasteko.*
- k. Bai noski, asko ikas daiteke horrela. Momentuan landu nahi denaren arabera. Baloreak, hizkuntza bera, historia...*
- l. Bai, lasaiak: ibil bedi*
- m. Bai. Euskal-rock edozein abesti. (80 eta 90 hamarkadak)*

### 3.1.4. Ondorioak

Ondorio nagusi gisa, esan dezakegu musikaren kontsumoa oso altua dela Alaitz BHiko ikasleengan, eta beren bizitzan oso inportantea dela ikusi dugu. Ikusi dugun moduan, kontsumo hori *streaming* bidez egiten dute gehienetan, online plataformetan. Gure sekuentzia didaktikoan erabiliko ditugun kantuak plataforma digitaletan entzuten ditugu, eta, beraz, datu honek asko laguntzen gaitu, pentsatzekoa baita ohituak egonen direla plataforma horiekin. Online izaera honekin lotuta, ikusi dugu irudiari garrantzia ematen diotela ikasleek eta maite dituzten musikariak Instagramen jarraitzen dituztela. Hori jakitea ere oso baliagarria izanen da gure sekuentzia didaktikoan.

Estiloei eta taldeei dagokienez, gehien entzuten direnak rap/trap eta reggaetoia dira, baina ikasleek ez dituzte estilo horiek euskaraz aurkitzen. Gure jarduerekin, egon badirela erakutsiko diegu. Aipatuko ditugun talde horiek, gainera, ikasleentzat tradizionalak ez izan arren, euskal musikatzat hartu behar direla erakutsiko diegu. Bukatzeko, Iruñerriko taldeen presentzia oso handia dela ikusi dugu eta, hortaz, sekuentzia didaktikoan erabiliko ditugun musika taldeak gertukoak izanen dira ikasleentzat.

## 3.2. Sekuentzia didaktikoa

Atal teorikoan azaldu duguna eta inkestaren emaitzak kontuan hartuta, DBHko laugarren mailarako sekuentzia didaktiko bat sortu dugu. Proposamen honek IKTen eta euskal musikaren erabileraren laguntzarekin euskal poesia eta bertsolaritza lantzeko balio du, eta horretarako lau jarduera aurkeztuko ditugu jarraian.

### 3.2.1. Helburuak

Sekuentzia didaktiko honen helburuak finkatu ahal izateko, hasteko, Nafarroako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Curriculumak (24/2015 Foru Dekretua) zehazten duena ikusiko dugu. 4. artikuluan etapako helburuak aurki ditzakegu, eta horietatik ondokoak izanen dira gure sekuentzia sortzeko erabiliko ditugunak:

*e) Oinarrizko trebetasunak garatzea informazio iturrien erabileran, zentzu kritikoz, ezagutza berriak eskuratzeko. Teknologien eremuan oinarrizko prestakuntza eskuratzeko, bereziki informazio eta komunikaziokoetan.*

*g) Espiritu ekintzailea eta norberarenganako konfiantza, parte-hartzea, zentzu kritikoa, ekimen pertsonala eta ikasten ikasteko, planifikatzeko, erabakiak hartzeko eta erantzukizunak bereganatzeko gaitasuna garatzea.*

*h) Gaztelaniazko eta, kasua bada, euskarazko testu eta mezu konplexuak, ahoz eta idatziz, zuzen ulertu eta adieraztea, eta literatura ezagutzen, irakurtzen eta ikasten hastea.*

*m) Sormen artistikoa preziatzea eta agerkari artistiko desberdinen hizkuntza ulertzea, adierazpeneko eta irudikapeneko askotariko baliabideak erabiliz.*

(Nafarroako Gobernua, 2015: 3)

Etapakoez gain, Euskal Hizkuntza eta Literatura ikasgaiko helburuak ditugu, curriculumak zehaztutakoak (Nafarroako Gobernua, 2015: 122). Orokorrean, ikasgaiaren helburu nagusia ikasleen gaitasun komunikatiboa garatzea da, dituen alderdi guztietan: pragmatikoa, linguistikoa, soziolinguistikoa eta literarioa. Trebetasun horiek eskuratzeko, adibidez, hainbat testu mota irakurtzea eta ulertzea eskatzen da etapa guztian zehar, eta gure kasuan horri jarriko diogu arreta.

Euskal Hizkuntza eta Literatura ikasgaiko edukiak eta helburuak lau multzotan banatzen diren arren, gure sekuentzian laugarrena hartuko dugu kontuan batez ere (*Hezkuntza Literarioa*), xede nagusia hau izanik:

«Hezkuntza literarioa» multzoak bere egiten du ikasle kultu eta gaituak egiteko helburua, bizitzan zehar jarraipena izanen duen irakurketa-prestakuntzako prozesuan inplikatu direnak, prozesua ikasle urteetara mugatu gabe. Marko kontzeptual honek txandakatu egiten ditu, batetik, beren gustu pertsonaletatik eta heldutasun kognitibotik hurbileko lan literarioen, eta bestetik, gure literaturaren ekarpenik esanguratsuenetako batzuen gaineko oinarritzko ezagutza ematen duten testu literarioen eta obra osoen irakurketa, ulermena eta interpretazioa.

(Nafarroako Gobernua, 2015: 122)

Bukatzeko, sekuentzia didaktiko osoaren helburu zehatzak genituzke. Euskal poesia eta bertsolaritza lantzeko bide berri bat proposatu dugu sekuentzia honekin. Nolabait, ideia horren xedea literatura gertuago sentiaraztea da, eta horretarako euskal musika erabiliko dugu, bien arteko loturak zehatzuz. Hori lortzeko IKTen laguntza izanen dugu, gure helburuetako bat ikasleek euskal ingurune digitala hobeki ezagut dezaten izanen baita.

### **3.2.2. Edukiak eta gaitasunak**

Atal honetan curriculumeko zein eduki eta konpetentzia landuko diren zehaztuko da. Horretarako, DBHko laugarren mailako Euskal Hizkuntza eta Literatura ikasgaiaren alde aurretik finkatuak dauden edukiak hartuko ditugu kontuan.

Edukiak lau multzotan banatzen dira ikasgaiaren, DBHko eta batxilergoko maila guztietan: *1. Ahozko komunikazioa: entzutea eta ulertzea, hitz egitea eta elkarrizketan jardutea, 2. Idatzizko komunikazioa: irakurtzea eta idaztea, 3. Hizkuntzaren ezagutza: hizkuntzaren ikaskuntzari buruzko gogoeta eta 4. Hezkuntza literarioa.* Gure sekuentzia didaktikoan azken horri emanen diogu

garrantzia, eta bertan dauden edukiak landuko ditugu. Hauek, dira, beraz, DBHko laugarren mailarako zehaztutako edukiak:

- *XX. eta XXI. mendeetako euskarazko poemak irakurtzea, ulertzea eta iruzkintzea, egilearen asmoa, gaia eta generoaren ezaugarriak atzemanaz, edukia testuinguru soziokultural eta literarioarekin erlazionatuz eta poema horien gaineko iritzi pertsonal arrazoituak emanaz.*
- *Euskarazko olerki garaikideen irakurketa iruzkindua egitea eta errezitatzea, arreta berezia eskainiz sinbolismoak eta abangoardiek hizkuntza poetikoari egindako ekarpenei, olerkietan elementu sinbolikoen eta baliabide erretorikoen eta metrikoen funtzioa baloratuz eta hizkuntza poetikoa baloratuz sentimenduak adieraztearen zerbitzura dagoen tresna gisa.*
- *Testu poetikoak idaztea, XX. eta XXI. mendeetako testuen irakurketatik abiatuz, generoko konbentzio formalei jarraikiz, eta asmo ludikoarekin eta sortzailearekin.*

(Nafarroako Gobernua, 2015: 136)

Bestetik, gaitasunei dagokienez, hauek dira etapan zehar ikasleek eskuratu behar dituzten oinarrizko gaitasunak:

- a) Hizkuntza komunikazioa (OG1).
- b) Matematika gaitasuna eta zientzia eta teknologiako oinarrizko gaitasunak (OG2).
- c) Gaitasun digitala (OG3).
- d) Ikasten ikastea (OG4).
- e) Gaitasun sozial eta zibikoak (OG5).
- f) Ekimena eta ekintzailtza (OG6).
- g) Kontzientzia eta adierazpen kulturalak (OG7).

(Nafarroako Gobernua, 2015: 3)

Horietatik, sekuentzia didaktikoan landuko direnak hauek dira: *hizkuntza komunikazioa (OG1), gaitasun digitala (OG3), ekimena eta ekintzailtza (OG6) eta kontzientzia eta adierazpen kulturalak (OG7).*

### **3.2.3. Metodologia**

Lehenik, sekuentzia didaktiko hau praktikara eramateko oinarri metodologiko batzuk zehaztu ditugu. Erabiliko dugun metodologia parte-hartzailea eta aktiboa izanen da, eta modu honetan, ikasleek ikaspen-irakaspen prozesuan aktiboki parte hartuko dute, beraien interesetatik abiatuko baikara, aurretik sortutako inkestaren laguntzaz. Horrela, beraz, aurrezagutzatik abiatuko da sekuentzia didaktikoa eta ikaslearen gustuak eta interesak erdigunean jarriko ditugu.



Oinarri metodologikoak kontuan hartuta, hiru ardatz izanen ditu gure proposamenak: IKTak, Suggestopedia eta talde lana.

- *IKTak*: Alaitz BHIn gela bakoitzak arbel digital bana du, eta hori erabiliko dugu interneten aurkituko ditugun baliabideak klasean ikusteko eta entzuteko (bideoak, sare sozialak, literatura webguneak...). Ikastetxe honetan, gainera, mugikorraren erabilera arduratsua onartua dagoenez gero, behar izatekotan klasean erabiltzeko baimena emanen diegu ikasleei.
- *Suggestopedia*: musikaren erabilera ez dugu lan egiteko momentura mugatuko, eta giroa hobetzeko erabiliko dugu. Gure kasuan, Lozanoven proposamenean ez bezala, ez litzateke musika klasikoa izanen, baizik eta euskal musika taldeen diskoak, saio bakoitzean landuko dugunaren arabera hautatuak.
- *Talde lana*: lan guztiak taldeka egingen ditugu, sormen prozesua aberatsagoa izan dadin. Talde heterogeneoak eta orekatuak izanen dira, eta irakasleak egin beharko ditu. Hori lortzeko, talde bakoitzean zailtasun gehiago dituzten ikasleak erraztasun gehiago dituztenekin nahastuko dira, haien arteko laguntza posible izan dadin. Horrela, rolak banatzeko orduan erraztasun gehiago dituzten ikasleek rol konplexuagoak hartuko dituzte. Rol horiek, hortaz, lau izanen dira: *idazkaria*, *denbora kudeatzailea*, *bozeramailea* eta *koordinatzailea*. Gainera, ahal den heinean talde bakoitzean musikari bat egoteko ahalegina egingen da.

### 3.2.4. Baliabideak

IKTen eta euskararen ingurune digitalaren erabilpena sustatu nahi dugu proposamen honekin. Horregatik, erabiliko ditugun baliabideak online eskuratzeko aukera izanen dugu, eta ahal den heinean lan guztia modu digitalean egiteko eskatuko diegu ikasleei. Segidan, erabiliko ditugun baliabideak aipatuko ditugu.

#### 3.2.4.1. *badok.eus* webgunea

Badok ataria (edo *badok.eus*) Berria egunkariak 2009an sortutako euskal musikari buruzko webgune bat da, euskal kantagintzaren inguruko dokumentazio bilgune bat. Guneak hainbat atal ditu: *aldizkaria*, *musikariak*, *azken kantuak*, *azken bideoak*, *zerrendak* eta *podcasta*. Aldizkaria atala musikariei egindako elkarrizketek, musikari buruzko artikuluek, euskal kantagintzaren historiak, zuzeneko bideoek eta blog batek osatzen dute. Nolabait, webgunearen idatzizko parte dela esan genezake. *Musikariak* atalean, aldiz, euskal talde eta bakarlariak estiloka eta alfabetikoki sailkatuak daude, eta bakoitzaren inguruko informazioa dago: diskografia, biografia, kantuen letrak.... Bertan talde guztien kantuak *streaming* bidez entzun daitezke, beste plataformetatik abiatuta (Youtube,


Bandcamp, SoundCloud, Deezer eta Spotify). Bestetik, *azken kantuak/azken bideoak* atalak egunero eguneratzen dira, euskal taldeek argitaratzen dituzten kantuak momentuan entzuteko aukera emanaz. Gainera, zerrendak atalean hainbat musikarik egindako kantu-zerrendak aurkituko ditugu, betiere euskal musikaren barnean. Aipatzekoa da berriki sortu duten *Dunbala* izeneko *podcasta*, Eneritz Furyak eta Jagoba Salvadorrek gidatutako irratsaioa. Informazio guzti hori, bestalde, sare sozialetan dituzten profiletan partekatzen dute, bai eta mugikorretarako sortutako aplikazioan ere.

### 3.2.4.2. Literatura webguneak: *armiarma.eus*


Musika alde batera utziz, sekuentzian erabiliko ditugun olerkiak eta autoreen informazioa *armiarma.eus* webgunean aurkituko dugu. Gunearen barnean hainbat webgune berezitu aurkituko ditugu: *Literaturaren zubitegia* (idazleei buruzko informazioa), *basquepoetry.eus* (euskal poesiaren ataria), *klasikoen gordailua* (testu klasikoak: liburuak, baladak, kanta, herri literatura...) eta *bertso eta olerkien hemeroteca*, besteak beste.

### 3.2.4.3. Sare sozialak: Instagram

Inkestako datuei begira, ikusi dugu gazteen artean gehien erabiltzen den sare soziala Instagram dela. Horregatik, gure sekuentzia didaktikoan hori erabiltzea erabaki dugu. Aplikazioan musikarien profilak ikus daitezke, eta bertan argazki promozionalak, bideoklipen zatiak eta testuak aurkituko ditugu. 1. eta 2. irudietan Zetak eta Izaroren Instagram profilak ikus daitezke, hurrenez hurren.



1. irudia. Zetak taldearen Instagram profila



2. irudia. Izaro abeslariaren Instagram profila

### 3.2.5. Jarduerak

Jarraian, sekuentzia didaktiko hau osatzen duten lau saioetarako prestatutako jarduerak azalduko ditugu, bakoitzaren helburuak, baliabideak, dinamika, denboralizazioa eta ebaluazioa zehaztuz.

1. SAIOA: <i>Autoreak lantzen</i>			
<b>Helburu espezifikoak</b>	- Euskal poesiaren autoreak lantzea IKT-en bitartez (metodologia aktiboa sustatuz), euskal literaturaren historiari gerturatzeko.		<b>Iraupena</b> 55 minutu
<b>Edukiak</b>	- XX-XXI. mendeko poesia idazleak. - Olerkien elementu sinbolikoak.	<b>Baliabideak</b>	- Arbel digitala. - Webguneak: <i>badok.eus</i> , <i>armiarma.eus</i> . - Ikasleen mugikorrak.
<b>Gaitasunak</b>	- OG1 - OG3 - OG7	<b>Taldekatzeta eta espazioaren erabilera</b>	- Ikasleak lauko taldetan banatuko dira.
<b>Garapena eta denboralizazioa</b>	<ol style="list-style-type: none"> <li><b>Elkarrizketa (5')</b>: Poesia autore nagusiak arbelean zerrendatu eta ikasleei galdetu ezagutzen dituzten ala ez. Adibideak: Bernat Etxepare, Gabriel Aresti, Joseba Sarrionandia eta Itxaro Borda.</li> <li><b>Webguneak aurkeztu eta informazioa bilatu (20')</b>: <i>Badok.eus</i> eta <i>armiarma.eus</i> webguneak aurkeztu arbel digitalean, eta lauko ikasle taldeak sortu. Talde bakoitzak autore bat aukeratuko du eta informazioa bilatu mugikorrekin (aurreko webguneetan edo beste batzuetan). Musika eta poesia lotu behar dituztela esanen zaie, eta autore horien poema batekin sortutako kanturen bat aukeratu beharko dute. Adibideak: Oskorriren «Sautrela» (Etxepare), Eñaut Elorrietaren «Nire aitaren etxea» (Aresti), Gosereren «Gosariak» diskoa (Sarrionandia) eta Hertzainaken «Bi minutuero» (Borda).</li> <li><b>Ikasleen azalpenak entzun eta kantuak aztertu (30')</b>: Talde bakoitzak aurkitutako informazioa partekatuko du gela guztiarekin, eta kantuak entzunen ditugu letra aztertzeko (gaia, testuingurua, asmoa, sinbolismoa...).</li> </ol>		
<b>Ikaslearen papera</b>	- Informazioa bilatzea eta esanguratsuen adieraztea. - Iritzia ematea.	<b>Irakaslearen papera</b>	- Ikasleen gidari izatea. - Ikasleen azalpenei feedbacka ematea.
<b>Ebaluazio irizpideak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- XX. eta XXI. mendeetako poemak irakurtzen eta ulertzen ditu, estetikoki baloratzen ditu eta horien gaineko iritzi pertsonal arrazoituak ematen ditu.</li> <li>- Informazioaren eta komunikazioaren teknologien baliabide askotarikoak erabiltzen ditu bere lan akademikoak egiteko.</li> <li>- Lanen arteko erlazioak eta loturak ezartzen ditu, gehien interesatzen zaion edo zaizkion lanean zentratuz.</li> </ul>		

## 2. SAIOA: *Bertsolaritza eta musika*

<b>Helburu espezifikoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bertsolaritzaren eta raparen errima motak, legeak eta gaiak lantzea raparen bidez.</li> <li>- Bertso bat sortzeko gai izatea.</li> </ul>	<b>Iraupena</b>	
		55 minutu	
<b>Edukiak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Musika eta bertsolaritzaren arteko loturak.</li> <li>- Baliabide estilistikoak eta errima motak.</li> </ul>	<b>Baliabideak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Arbel digitala.</li> <li>- <i>Badok.eus</i>.</li> <li>- Ikasleen mugikorrak.</li> </ul>
<b>Gaitasunak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- OG1</li> <li>- OG7</li> </ul>	<b>Taldekatzeta eta espazioaren erabilera</b>	- Ikasleak lauko taldetan banatuko dira.
<b>Garapena eta denboralizazioa</b>	<ol style="list-style-type: none"> <li><b>1. Bertsolariak eta musika lotu (10’):</b> Adibideak aurkeztu <i>badok.eusen</i> bidez: 7 Eskale taldea (Unai Iturriaga, Igor Elortza), Karidadeko benta/Hezurbeltzak (Jon Maia) eta 2zio rap taldea (Odei Barroso).</li> <li><b>2. Rapa eta bertsoa (20’):</b> Ikasleak lauko taldetan banatuko ditu irakasleak eta bertsolaritzari buruzko informazioa bilatuko dute interneten (errima motak eta neurriak: zortziko txikia). Gauza bera egingen dute raparekin (errima motak eta gaiak). Informazioa bilduko dute.</li> <li><b>3. Bertsoa sortzen (25’):</b> Rapean ohikoak diren gai eta estiloekin bertso bat idatzi beharko dute zortziko txikian, errimak errespetatuz. Bertsoa irakasleari emanen zaio.</li> </ol>		
<b>Ikaslearen papera</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Azalpenak entzutea.</li> <li>- Aktiboki parte hartzea.</li> </ul>	<b>Irakaslearen papera</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikasleen gidari izatea.</li> <li>- Sorkuntza prozesuan laguntzea.</li> </ul>
<b>Ebaluazio irizpideak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Testu poetikoak/bertsoak idazten ditu emandako erduetatik abiatuz, generoaren konbentzioei jarraikiz eta asmo ludiko eta sortzailearekin.</li> <li>- Lanen arteko erlazioak eta loturak ezartzen ditu, gehien interesatzen zaion edo zaizkion lanean zentratuz.</li> <li>- Talde-lanean ongi aritzen da iritziak errespetatuz eta ardurak betez.</li> </ul>		

3. SAIOA: <i>Letragintza</i>			
<b>Helburu espezifikoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Iruñerriko taldeen egoera ezagutaraztea.</li> <li>- Kantuen letren eta olerkien idazketari buruzko gogoeta piztea, talde lana sustatuz kantu baten letra moldatzeko.</li> </ul>		<b>Iraupena</b>  55 minutu
<b>Edukiak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Norberaren gustu eta afizioetatik abiatuta interes literarioa sortzea.</li> <li>- Asmo literarioko testuak idaztea, abestietatik abiatuta.</li> </ul>	<b>Baliabideak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Arbel digitala.</li> <li>- <i>Youtube, badok.eus</i></li> <li>- Skabidean-eko kideekin elkarrizketa 18. minututik aurrera (<i>Youtuben: <a href="https://youtu.be/griSwlhWMVU">https://youtu.be/griSwlhWMVU</a></i>).</li> </ul>
<b>Gaitasunak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- OG1</li> <li>- OG6</li> </ul>	<b>Taldekatzeta eta espazioaren erabilera</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Elkarrizketa ikusteko banaka eseriko dira ikasleak.</li> <li>- Lan egiteko ikasleak lauko taldetan banatuko dira.</li> </ul>
<b>Garapena eta denboralizazioa</b>	<ol style="list-style-type: none"> <li><b>1. Aurkezpena eta elkarrizketa (20’):</b> Aukeratu dugun musika taldea aurkeztuko dugu, eta elkarrizketa ikusiko dugu Youtuben.</li> <li><b>2. Ideien bilketa (10’):</b> Elkarrizketatik hartutako ideien bilketa egingen dugu, eta denon artean eztabaidatuko ditugu.</li> <li><b>3. Kantuaren moldaketa (25’):</b> Elkarrizketan entzundakoaren laguntzaz (letrak idazteko modua, gaiak...) ikasle talde bakoitzak Skabidean kantu bat aukeratuko du eta nahi duen moduan moldatu. Irakasleak moldaketak proposa ditzake: gaia aldatu gabe beste kantu bat idatzi, lexikoa aldatu, metaforak aldatu... Bukaeran, idatzitakoak irakasleari entregatuko zaizkio.</li> </ol>		
<b>Ikaslearen papera</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Aktiboki parte hartzea.</li> <li>- Kantua sortzea lankidetzan.</li> </ul>	<b>Irakaslearen papera</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikasleen gidari izatea.</li> <li>- Sorkuntza prozesuan laguntzea.</li> </ul>
<b>Ebaluazio irizpideak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Testu poetikoak idazten ditu emandako ereduetatik abiatuz, generoaren konbentzioei jarraikiz eta asmo ludiko eta sortzailearekin.</li> <li>- Baliabide estilistikoak erabiltzen ditu.</li> <li>- Talde-lanean ongi aritzen da iritziak errespetatuz eta ardurak betez.</li> </ul>		

4. SAIOA: Irudiarekin sortzen			
<b>Helburu espezifikoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Irudiaren/estetikaren atzean (Instagram, bideoklipak, diskoen azalak) dauden mezuak aztertzea eta idatziz ematea.</li> <li>- Estilo figurak erabiltzea.</li> </ul>	<b>Iraupena</b>	
		55 minutu	
<b>Edukiak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Asmo literarioko testuak idaztea.</li> <li>- Idatziz ikusten dutena adieraztea.</li> </ul>	<b>Baliabideak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Arbel digitala.</li> <li>- Ikasleen mugikorrak.</li> <li>- Webguneak: Youtube.</li> <li>- Sare sozialak: Instagram.</li> <li>- Diskoen azalak edo Instagrameko irudiak (ikasle bakoitzak bat ekarriko du, aurretik esan beharko zaie).</li> </ul>
<b>Gaitasunak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- OG1</li> <li>- OG6</li> <li>- OG7</li> </ul>	<b>Taldekatzeta eta espazioaren erabilera</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ariketa binaka egingen dute ikasleek (bikoteak gustu musikalen araberakoak izanen dira).</li> </ul>
<b>Garapena eta denbormalizazioa</b>	<ol style="list-style-type: none"> <li><b>Bideoklipak/Instagram aurkeztu (15')</b>: Ikasle bakoitzak disko azal bat edo instagrameko irudi bat ekarriko du klasera, eta denak zerrendatuko ditugu musikariaren arabera. Horrela, bi ikasleek musikari bera hautatu badute elkarrekin lan egingen dute. Bideoklipak aukeratu badituzte <i>Youtuben</i> ikusiko ditugu gainera. Ondoren, taldeak egingen ditugu.</li> <li><b>Irudiekin sortu (20')</b>: Bikote bakoitzak 20 minutu izanen ditu aukeratu dituen irudien mezua estilo figuraren batekin azaltzeko. Orri batean emanen dute idatziz, eta arbelean itsatsiko ditugu.</li> <li><b>Emaitzen gaineko hausnarketa (20')</b>: Guztion artean emaitzez mintzatuko gara, irudiak arbelean proiektatzen ditugun bitartean. Gustokoenak aukeratuko ditugu, mezua hobeki azaldu dutenak.</li> </ol>		
<b>Ikaslearen papera</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Mugikorra modu arduratsuan erabiltzea.</li> <li>- Bikotearekin ongi moldatzea.</li> </ul>	<b>Irakaslearen papera</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikasleen gidari izatea.</li> <li>- Zalantzak argitzea.</li> </ul>
<b>Ebaluazio irizpideak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Baliabide estilistikoak erabiltzen ditu.</li> <li>- Informazioaren eta komunikazioaren teknologien baliabide askotarikoak erabiltzen ditu bere lan akademikoak egiteko.</li> <li>- Irudiak interpretatzen ditu eta estetikoki baloratzen ditu.</li> </ul>		

### 3.2.6. Ebaluazioa

Sekuentzia didaktikoaren nota lortzeko, irakasleak hainbat tresna izanen ditu eskura. Batetik, sekuentzia didaktikoa ebaluatzeko «Ikaslearen ebaluazio errubrika» erabiliko da. Ebaluazio hori behaketaz egingen da, eta tresna honekin notaren % 50a lortuko du ikasleak. Bestetik, jarduera bakoitzaren helburu espezifikoak bete diren ala ez ebaluatzeko errubrika bana erabiliko da, eta horiekin eskatzen diren idatzizko eta ahozko lanak ebaluatuko ditugu. Lan horiek notaren % 40a izanen dira, eta beste % 10a jarrera eta parte-hartzea izanen da.

## IKASLEAREN EBALUAZIO ERRUBRIKA

Ikaslearen izena:

PUNTUAK	3	2	1
<b>Edukiak</b>	Ikasleak edukiak barneratu ditu eta epe luzean gogoratzen ditu	Ikasleak edukiak barneratu ditu, baina epe motzean gogoratzen ditu.	Ikasleak ez ditu edukiak behar bezala barneratu.
<b>Helburuak</b>	Ikasleak helburu gehienak edo guztiak bete ditu.	Ikasleak helburu batzuk bete ditu.	Ikasleak ez ditu helburuak behar bezala bete.
<b>Gaitasunak (3 puntu bakoitzak)</b> - Hizkuntza gaitasuna - Gaitasun digitala - Kontzientzia eta adierazpen kulturalak - Ekimena eta ekintzailtza	Gaitasuna garatu du.	Gaitasuna garatzeko bidean dago.	Zehaztutako gaitasuna ez du garatu.
<b>Autonomia</b>	Ikasleak modu autonomoan lan egiten du, beharrezkoa duenean laguntza eskatuz.	Ikasleak modu autonomoan lan egiten du, baina laguntza eskatzea kostatzen zaio.	Ikasleak modu autonomoan lan egiteko zailtasunak ditu.
<b>Parte-hartzea</b>	Ikasleak talde txikian nahiz handian aktiboki parte hartzen du, ekarpen aberatsak eginez.	Ikaslearen parte-hartzea nahikoa da, baina batzuetan arreta deitu behar zaio.	Ikaslearen ekarpenak eskasak dira, talde txikian nahiz handian.
<b>Interesa</b>	Ikasleak gaiarekiko interesa erakusten du, galderak egiten ditu eta ikasteko gogoak ditu.	Ikasleak ikasteko ahalegina egiten du, interes handirik ez badu ere.	Ikasleak ez du inolako motibaziorik, gaiarekiko interesa eta ikasteko gogoak eskasak dira.
<b>Rolak</b>	Ikasleak bere rola betetzen du eta ardurak argi ditu.	Ikasleak bere rola betetzeko ahalegina egiten du.	Ikasleari etengabe gogorazi behar zaio rola bete dezan.
<b>Lankidetzak</b>	Ikasleak errespetuz jokatzeko lankideekin, eta horien iritziak kontuan hartzen ditu.	Ikaslearen jarrerak ez du taldeko giroan eragiten, ez negatiboki ezta positiboki ere.	Ikasleak taldeko giroa okertzen du jarrera desegokiekien.

<b>GUZTIRA</b>			
	.../33 → (... : 3,3) x 0'5 =		

## JARDUERAK EBALUATZEKO ERRUBRIKAK (banaka edo taldeka)

1. JARDUERA (banaka)	3	2	1
<b>Ahozko aurkezpena</b>	Informazioa modu argian azaltzen du ahoz.	Informazioa ongi ematen du gehienetan, baina zailtasunak ditu.	Informazioa ez du modu argian azaltzen.
<b>Helburu espezifikoak</b>			
- XX. eta XXI. mendeetako poemak estetikoki baloratzen ditu eta horien gaineko iritzi pertsonal arrazoituak ematen ditu.	Bai, beti.	Gehienetan.	Oso gutxitan.
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologien baliabide askotarikoak erabiltzen ditu.	Bai, beti.	Gehienetan.	Oso gutxitan.
- Lanen arteko erlazioak eta loturak ezartzen ditu.	Bai, beti.	Gehienetan.	Oso gutxitan.
<b>GUZTIRA</b>			
		.../12 → (... : 1,2) x 0,1 =	

2. JARDUERA (taldeka)	3	2	1
<b>Bertsoa</b>	Bertsoa errimak eta raparen gaia errespetatuz egin dute.	Bertsoa egin dute errimak errespetatuz, baina gaia ez dute ongi aukeratu.	Bertsoa egiteko orduan ez dituzte errimak errespetatu.
<b>Helburu espezifikoak</b>			
- Bertsoak idazten ditu emandako ereduetatik abiatuz, generoaren konbentzioei jarraikiz eta asmo ludiko eta sortzailearekin.	Bai, beti.	Gehienetan.	Oso gutxitan.
- Lanen arteko erlazioak eta loturak ezartzen ditu, gehien interesatzen zaion edo zaizkion lanean zentratuz.	Bai, beti.	Gehienetan.	Oso gutxitan.
- Talde-lanean ongi aritzen da iritziak errespetatuz eta ardurak betez.	Bai, beti.	Gehienetan.	Oso gutxitan.
<b>GUZTIRA</b>			
		.../12 → (... : 1,2) x 0,1 =	



3. JARDUERA (taldeka)	3	2	1
<b>Kantuaren letra</b>	Taldeak ongi moldatu du kantuaren letra. Baliabide estilistikoak erabili dituzte eta poetikotasuna mantendu dute.	Taldeak kantuaren letra moldatu du, baina baliabide estilistikoak erabilera ez da ona izan.	Taldeak ez du kantuaren letra behar bezala moldatu. Baliabide estilistikoak ez dute erabili.
<b>Helburu espezifikoak</b>			
- Testu poetikoak idazten dituzte emandako ereduetatik abiatuz, generoaren konbentzioei jarraikiz eta asmo ludiko eta sortzailearekin.	Bai, beti.	Gehienetan.	Oso gutxitan.
- Baliabide estilistikoak erabiltzen dituzte.	Bai, beti.	Gehienetan.	Oso gutxitan.
- Talde-lanean ongi aritu dira iritziak errespetatuz eta ardurak betez.	Bai, beti.	Gehienetan.	Oso gutxitan.
<b>GUZTIRA</b>	.../12 → (... : 1,2) x 0,1 =		

4. JARDUERA (binaka)	3	2	1
<b>Irudiaren deskribapena</b>	Bikoteak ongi interpretatu du irudia eta estilo figura egokia erabili dute.	Bikoteak ongi interpretatu du irudia baina ez du estilo figura egokia erabili.	Bikoteak ez du irudia ongi interpretatu.
<b>Helburu espezifikoak</b>			
- Baliabide estilistikoak erabiltzen ditu.	Bai, beti.	Gehienetan.	Oso gutxitan.
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologien baliabide askotarikoak erabiltzen ditu bere lan akademikoak egiteko.	Bai, beti.	Gehienetan.	Oso gutxitan.
- Irudiak interpretatzen ditu eta estetikoki baloratzen ditu.	Bai, beti.	Gehienetan.	Oso gutxitan.
<b>GUZTIRA</b>	.../12 → (... : 1,2) x 0,1 =		

## 4. ONDORIOAK

Gure ikerketaren helburu nagusietako bat Alaitz BHIko ikasleen musika ezagutza aztertzea izan da. Horrela, beraz, konfirmatu dugu gaur egungo gazteentzat musika oso inportantea dela haien bizitzan. Estiloen aldetik, rapa, trapa eta reggaettoa nagusitzen direla ikusi dugu, eta euskaraz genero horiek dauden arren, gazteek beste hizkuntzetan entzuten dituzte batez ere. Nolabait, esan dezakegu Iruñerriko gazteek antzeko musika entzuten dutela, eta lortu ditugun emaitzak baliagarriak dira hori egiaztatzeko. Barañaingo egoera kontuan hartu dugun arren, uste dugu emaitzak beste lekuetara estrapolatzen ahal direla. Bestalde, euskara ez beste hizkuntzetan (espainola eta ingelesa) entzuten dute musika orokorrean, baina euskaraz entzuten dutenean, modan dauden taldeak jarraitzen dituztela ikusi ahal izan dugu, bai eta ere Iruñerriko taldeen presentzia handia dela.

Bigarrenik, uste dugu inkesta eta proposamen hau irakasleendako lagungarri izanen direla, ikasleak hobeki ezagutzeko aukera ematen baitute. Aitortu behar dugu COVID-19ak sortu duen egoerarengatik proposamena martxan jartzea ezinezkoa izan dela, eta, beraz, ezin izan ditugula jarduerak egin. Halere, ikasleari poesia eta literatura gerturatuko zaizkiola aurreikusitakoenezake, eta, gainera, eskolan egiten den musikaren erabilera galdetu diegunean, ia guztiek erantzun dute gustatuko litzatekeela erabilera hori sustatzea. Beraz, pentsa daiteke gure proposamena ongi hartuko luketela aurrera ateratzerik izan bagenu.

Behin gure ikasleen musika gustuak ezagututa, hemendik aurrera, irakasle bakoitzaren esku geratuko litzateke erreferente horien erabilpena sustatzea, betiere aztertuz gela eta ikastetxe bakoitzaren nolakotasuna, gazteen musika kontsumoa ezberdina izaten ahal baita Iruñerriko beste ikastetxeetan edo Nafarroako beste institutuetan. Gainera, uste dugu inkesta hau erabilgarria izan daitekeela beste ikastetxe batzuetarako. Azkar erantzuten da, emaitzak argi azaltzen dira eta gazteen musika kontsumoa ezagutzea (euskal musikaren kontsumoa, batez ere) ahalbidetzen du. Irakasleendako interesgarria dela pentsatzen dugu, izan ere, nolabait, ikasleen «hizkuntza» eta «kode»-ekin edukiak lantzeko aukera ematen digu.

## 5. ERREFERENTZIAK

- Agote, G. (2014). Kantagintza berriaren sorrera. In *Badok Berriaren euskal musikaren ataria*. Hemendik eskuratua: <https://www.badok.eus/historia/kantagintza-berriaren-sorrera/>, [2020-03-27].
- Alaitz BHI D ereduko Institutu publikoa - Barañain. (2020). Hemendik eskuratua: <http://alaitz.net/index.php/eu/>, [2020-04-03].
- Barañaingo Udala. (2020). *Barañaingo Udala*. Hemendik eskuratua: <http://www.baranain.es/eu/>, [2020-04-03].
- Claerr, T., & Gargan, R. (1984). The Role of Songs in the Foreign Language Classroom. *OMLTA Journal*, 4, 28-32.
- Egaña, A.; Garzia, J. & Sarasua, J. (2001). *Bat-bateko bertsolaritza. Gakoak eta azterbideak*. Andoain: Bertsozale Elkartea/Bertsolari Liburuak.
- Elorriaga, U. (1995). Bertsolaritza eta poesia. *Enseiukarrear*, 11, 197-214.
- Eskisabel, J. (2012). *Euskal kantagintza: pop, rock, folk*. Donostia: Etxepare Euskal Institutua.
- Etxaniz, N. (1951). *Kanta-kantari*. Ordorika argitaletxea. Hemendik eskuratua: <http://trikitixa.eus/trikimailua/testuak/ItzBi.htm>, [2020-02-23].
- Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua. (2011). *Nafarroako Mapa Soziolinguistikoa 2011*. Iruñea.
- Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua & Euskararen erakunde publikoa. (2017). *VI. Inkesta Soziolinguistikoa*. Iruñea.
- Gardner, H. (2001). *Estructuras de la mente: la teoría de las inteligencias múltiples*. Bogotá: Fondo de Cultura Económica.
- Gurrutxaga, J. (2005eko urtarrilaren 30a). Hiru Truku: «Ez duzu lurralde askotan topatuko hemen dugun entzuleen maila». *Argia aldizkaria*, 1977. Hemendik eskuratua: <https://www.argia.eus/argia-astekaria/1977/hiru-truku-ez-duzu-lurralde-askotan-topatuko-hemen-dugun-entzuleen-maila>, [2020-04-18].

- Instituto Nacional de Estadística. (2019). *Barañáin - Población: inmigrantes, emigrantes y otros datos sobre los habitantes de cada municipio*. Hemendik eskuratua: <https://www.epdata.es/datos/poblacion-inmigrantes-emigrantes-otros-datos-habitantes-cada-municipio/3/baranain/1303>, [2020-04-03].
- Iztueta, I. (2015). *Cultura vasca vs Euskal kultura*. Donostia: Utriusque Vasconiae.
- Khaghaninejad, M.S. & Fahandejsaadi, R. (2016). *Music and Language Learning*. Shiraz: Shiraz University.
- Lozanov, G. (2009). *SUGGESTOPEDIA/RESERVOPIEDIA - Theory and Practice of the Liberating Stimulating Pedagogy on the Level of the Hidden Reserves of the Human Mind*. Sofía: St. Kliment Ohridski University Press.
- Nafarroako Gobernua. (2015). *Nafarroako Foru Komunitateko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Curriculum (24/2015 Foru Dekretua, apirilaren 22koa)*. NAO. 127. zk.
- Nastat. (2017). *Estadística de renta de la población navarra*. Iruñea: Nafarroako Estatistika Erakundea.
- Portellano, J.A. (2009). Cerebro Derecho, Cerebro Izquierdo. Implicaciones Neuropsicológicas de las Asimetrías Hemisféricas en el Contexto Escolar. *Psicología educativa*, 15(1), 5-12.
- Springer, Sally P. & Deutsch, G. (1988). *Cerebro izquierdo, cerebro derecho*. Madril: Alianza editorial.

# ERANSKINAK

## 1. Eranskina: inkesta

1. atala:



### MUSIKA OHITURAK: EUSKAL MUSIKAREN EZAGUTZA

Galdetegi honen helburua zure musika kontsumoa ezagutzea izanen da, Euskal Hizkuntza eta Literatura ikasgaiari aipatuko dituzun musikari, disko eta musika taldeak erabili ahal izateko. Horretarako, lehenik eta behin, ondoko informazioa beharko dugu.

Zure adina:

Tu respuesta \_\_\_\_\_

Zure sexua:

- Neska
- Mutila
- Beste bat

Zure klasea:

- DBH 2
- BATX 1
- BATX 2A
- BATX 2C


[Siguiete](#)

Nunca envíes contraseñas a través de Formularios de Google.

Este contenido no ha sido creado ni aprobado por Google. [Notificar uso inadecuado](#) - [Términos del Servicio](#) - [Política de Privacidad](#)

Google Formularios

## 2. atala:



### MUSIKA OHITURAK: EUSKAL MUSIKAREN EZAGUTZA

#### MUSIKA ZURE EGUNEROKOAN

Zer maiztasunarekin entzuten duzu musika astean zehar?

1 2 3 4 5

Oso gutxi      Asko

Inportantea da musika zure bizitzan?

1 2 3 4 5

Oso gutxi      Asko

Musikaria zara?

Bai

Ez

Noiz entzuten duzu musika gehienbat?

Triste nagoenean

Pozik nagoenean

Bietan

Eta non entzuten duzu?

Kontzertuetan

Youtube

Spotify

Mugikorrean deskargatzen ditut abestiak

Diskoak erosten ditut

Otro: \_\_\_\_\_

Zein testuingurutan zoaz gehienetan kontzertuetara?

Herriko/auzoko jaietan

Aretuetan sarrera erosita

Festibaletan

Zeintzuk dira zuzenean ikusi dituzun azken kontzertuak?

Tu respuesta \_\_\_\_\_

Musika bozgorailuekin ala entzungailuekin (aurikularrak) entzuten duzu?

Bozgorailuekin

Entzungailuekin

Musika taldeen diskoak osorik entzuten dituzu? Ala talde ezberdinen abestiak tartekatzen dituzu?

Diskoak

Abestiak

Ikasteko edo etxerako lanak egiteko musika entzuten duzu?

Bai

Ez


[Atrás](#) [Siguinte](#)

Nunca envíes contraseñas a través de Formularios de Google.

Este contenido no ha sido creado ni aprobado por Google. Notificar uso inadecuado - Términos del Servicio - Política de Privacidad

Google Formularios

## 3. atala



### MUSIKA OHITURAK: EUSKAL MUSIKAREN EZAGUTZA

#### MUSIKA MOTAK ETA HIZKUNTZAK

Aukeratu gehien entzuten dituzun 3 musika generoak

Heavy

Musika elektronikoa

Pop/Pop-rock

Jazz

Reggae/Ska

Reggaeton

Trap

Punk/Punk-rock

Musika klasikoa

Folk

Rock

Rap

Otro: \_\_\_\_\_

Zein hizkuntzetan entzuten duzu musika? (aukeratu gehien entzuten duzuna)

Euskara

Espainola

Ingelesa

Otro: \_\_\_\_\_

(Euskara aukeratu ez baduzu) Zergatik? Zure gustoko musika estiloak ez dituzu euskaraz aurkitzen?

Tu respuesta \_\_\_\_\_

Zer musika motaren falta sentitzen duzu euskal taldeetan?

Tu respuesta \_\_\_\_\_

Musika entzuten duzunean zeri ematen diozu garrantzi handiagoa?

Letra

Musika


[Atrás](#) [Siguinte](#)

Nunca envíes contraseñas a través de Formularios de Google.

Este contenido no ha sido creado ni aprobado por Google. Notificar uso inadecuado - Términos del Servicio - Política de Privacidad

Google Formularios

## 4. atala:



### MUSIKA OHITURAK: EUSKAL MUSIKAREN EZAGUTZA

**EUSKAL MUSIKA**

Zer da zuretzat euskal musika?

Tu respuesta \_\_\_\_\_

Zeintzuk dira zure euskal talderik gustokoenak?

Tu respuesta \_\_\_\_\_

Euskal talde berriak ala zaharrak entzuten dituzu gehienbat?

Berriak  
 Zaharrak

Zure euskal musikari buruzko ezagutza eskasa dela uste duzu?

Bai  
 Ez

Zure lagun taldean, orokorrean, euskal talde berberak entzuten dituzue?

Bai  
 Ez

Entzuten dituzun musikariak sare sozialetan jarraitzen dituzu?

Bai  
 Ez

Non? (aurrekoan EZ erantzun baduzu, ez erantzun galdera hau)

Instagram  
 Twitter  
 Facebook  
 Otro: \_\_\_\_\_

Garrantzitsua iruditzen al zaizu artisten irudia? Zergatik?

Tu respuesta \_\_\_\_\_

RAP-TRAP/MUSIKA ELEKTRONIKOA: aukeratu ezagutzen dituzun taldeak.

Zetak  
 Nizuri Tazuneri  
 Dupla  
 Onki Xin  
 2zio  
 Herrima  
 La Basu  
 Xatiro  
 Xsakara  
 Gorpuzkingz  
 Maisha MC

Iruñerriko musika taldeak entzuten dituzu? Zeintzuk?

Tu respuesta \_\_\_\_\_

Ezagutzen dituzun taldeak aukeratu.

Street Wise  
 JahGoikoa eta ReggaeZarra  
 Herdoil  
 Smog  
 Burutik  
 Tatxers  
 Leizeak  
 Skabidean  
 Sorkari  
 Baizerat

Instituan, musika ikasgaitik kanpo, euskal musika entzun al duzu noizbait klasean? Irakasleren batek erabili izan du? Nola? Zertarako?

Tu respuesta \_\_\_\_\_

Gustatuko litzaizuke klasean musika erabiltzea ikasgai lantzeko? Abesti proposamenik?

Tu respuesta \_\_\_\_\_

Bukatzeko, zerbait gehitu nahi bazenuke hemen duzu aukera:

Tu respuesta \_\_\_\_\_

**ESKERRIK ASKO!**